



Hezkuntza-sisteman hezkidetz eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana



Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki
daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2013ko azaroa

Ale-kopurua:

xxxxxx ale

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

L.G.: XXXXXXXX

Aurkibidea

	Or.
Aurkezpena	7
1. Justifikazioa	9
1.1. Hezkidetzan oinarritutako eskola baten bidean aurrera egitea	9
1.2. Hezkuntza-komunitatearentzako erronkak	12
1.3. Esparru juridikoa	30
2. Planaren oinarriak	39
2.1. Lanketa prozesua	39
2.2. Eginkizuna: nahi dugun eskola	40
2.3. Helburuak	41
3. Konpromisoak eta erdietsi beharreko lorpenak	43
4. Kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa	45
4.1. Ebaluazio-sistema	45
4.2. Egiturak	46
4.3. Komunikazio-sistema	47
Lan-plana	49
<hr/>	
I. ERANSKINA: Adierazle-multzoa	65
II. ERANSKINA: Memoria ekonomikoa	67

Aurkezpena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustaturiko plan honek hezkuntza-sistema du xede, zehatz-mehatz derrigorrezko hezkuntza (Lehenengo Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Haur Hezkuntza eta Batxilergoa, aldi honetarako: 2013-2014 ikasturtetik 2015-2016 ikasturtera. Planaren helburua transformazio-prozesua sustatzea da, eskola mistoko eredutik hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredura aurrera egiteko, genero-indarkeriari aurrea hartzen eta, azken buruan, sexismoak eragiten duen edozein indarkeriari aurre egiten laguntzeko.

Genero-indarkeria sexismoan eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritutako sistema baten ondorio larriena da. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetu.

Eskola leku pribilegiatua da aldaketa handiak hasteko, baina berak bakarrik ezin dio lan horri heldu, beste erakunde eta gizarte eragile batzuen laguntza formalagoa behar du, baita hurbileko hezkuntza-komunitatearen zuzeneko laguntza ere.

Plan honen helburua ikastetxeak ekimen orokorra eta estrategikoa egitea da, genero-indarkeriarekin loturiko hezkidetzeta, berdintasuna eta prebentzioa lantzeko. Hartara, ikuspegi horrek ikastetxeko kultura, politikak eta praktikak aintzat hartu eta gaitasun guztien ikaskuntzan integratu behar ditu; ikasleen arteko elkarriketa, elkarrekintzak, elkartasuna, berdintasuna eta errespetua bultzatuko dituzten metodologiaren laguntzarekin.

Era berean, beharrezkoa da ikuspegi horrek eskola-sistema eratzen duten egituretan eta pertsonengan eragitea: ikasleak, irakasleak, familiak, hezkuntza-administrazioa... azken batean, hezkuntza-komunitate guztia.

Gainera, funtsezkoa da ikastetxeen barrutik nahiz kanpotik sustaturiko jarduera horien inguruan, hezkidetzeta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak eta ikerketa zientifiko feministen emaitzak egotea.

Plan honek hezkidetzeta eta genero indarkeria Hezkuntza Administrazioaren agendan sartzen du. Horretarako, Hezkuntza Administrazioaren zerbitzu estrategikoei, besteak beste Berritzeguneei, Hezkuntza Ikuskaritzari, ISEI-IVEI Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeari eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari, batez ere helburuak eta ekimenak zehazten dituen plan bat aurkezten du. Gerora, zehaztutako planak ikastetxeetan izango du dagokion garapena eta zehaztapena.

Dokumentu hau bost ataletan dago egituratuta. Lehen atalean justifikazioa dago. Bertan, hezkidetzan oinarritutako eskola baten bidean aurrera egin behar dela adierazten da, hezkuntza-komunitateak dituen erronkak definitzen dira eta lan honen euskarri den erreferentziatzeko esparru juridikoa, berdintasunari buruzkoa, aurkezten da.

Bigarren atalean, Planaren oinarriak daude. Hau da, Planaren lanketa prozesua azaltzen da, eginkizunak definitzen dira. Gainera, lortu nahi den eskolaren ezaugarriak ezartzen dira eta helburu estrategikoak adierazten dira.

Hirugarren atalean, Sailak Planari buruz hartu dituen konpromiso nagusiak aurkezten dira, eta lortu beharreko helburuak zehazten dira.

Laugarren atalean, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema deskribatzen da, baita Plana kudeatzeko egiturak ere.

Azkenik, lan-plana aurkezten da, jarduerak modu egituratuan zehazten dituen, aurreikusitako helburuetan oinarrituta; strategiak eta kronograma zehazten dira.

1. Justifikazioa

Hezkidetzan oinarritutako filosofiatik abiatuta egiten diren analisietan, ikusmolde androzentrikoak baliogabetu behar dira lehenik, partzialak direlako eta objetibotasunik ez dutelako bederen, eta errealitate globalaren interpretazio zientifikoak egiteko ahalegina egin behar da.

M. José Urruzola Zabalza, 1995

1.1. Hezkidetzan oinarritutako eskola baten bidean aurrera egitea

Gure gizartean, uste hau oso zabaldua dago: emakumeen eta gizonen berdintasuna ia-ia lortuta dago. Egia da badirela berdintasuna bermatzen eta genero-indarkeria deuseztatzen saiatzen diren legeak eta plan instituzionalak. Halaber, emakumeek lan-merkatuan parte hartzen dute, hezkuntza-maila guztietara eta kulturara hel daitezke, eta horiek, zalantzarik gabe, bidean aurrera egitea dakarte. Hala ere, oraindik gizartean berdintasun-gaietan dagoen defizit garrantzitsua erakusten dute hainbat datuk: lan-merkatuari buruzkoek; ekonomiaren, kulturaren eta zientziaren alorretan erabakiak hartzeko esparruetan emakume gutxi daudela adierazten dutenek; partaidetza soziopolitiko baxua erakusten dutenek; etxeko lanaren eta zainketen banaketa desorekatua azaltzen dutenek; emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoek; pobrezari buruzkoek eta abarrek.

Hezkuntza-sisteman ere aurrerapen handiak egon dira. Izan ere, derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko mailetan, gaur egun, ikasle gehienak emakumeak dira. Irakaskuntza mistoa, irakaskuntza publikoaren eta itunpeko ikastetxe eta ikastetxe pribatu ia-ia guztien eredia izatea lortu da. Honetaz gain, arau-esparru zabal batek eskolan berdintasunezko gizarte baten alde lan egin dezala eskatzen dio hezkuntza-sistemari.

Gertaera horiek asko indartu dute uste hau: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortu da hezkuntzaren esparruan. Irudikeria hori indartzen dute, gainera, beste datu hauek: nesken emaitzak hobeak dira; etapa guztietan, errendimendu akademiko hobeak dute; eskola-porrotaren eta eskola uztearen tasa txikiagoak dituzte; eta gero eta emakume gehiago daude maskulinitzat jo izan ziren karreretan.

Hala ere, ikerketek erakusten digute nesken eta mutilen arteko harremanek asimetrikoak izaten jarraitzen dutela, eta egoera asko abusuan oinarrituta daudela; gaitasunak, trebetasunak eta bizitza-proiektuak generoarekin loturik daude oraindik; curriculum-dukietan, emakumeen ekarpenak ez dira ikusten, eta sexismoa eta genero-indarkeria nerabeen eta gazteen bizitzan garapenean eragiten ari diren errealitateak dira.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, plan honen bidez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun horiek gainditu daitezten nahi du, eta genero-indarkeria eta sexismoak eragindako indarkeria-mota guztiak deuseztatzen lagundu nahi du, hezkuntzaren eremutik. Alde horretatik, oso garrantzitsua da azpimarratzea eskolak leku pribilegiatua eta estrategikoa duela, gizartea berdintasunezkoa eta bidezkoa izan dadin laguntzeko.

Aintzat hartu behar da biztanle guztiak igarotzen direla hezkuntza-sistematik, eta eskolak ahalmen handia duela pertsonen garapen integrala bultzatzeko, genero estereotipoak ezarritako mugak eta jokabide sexistak gaindituz.

Hezkuntza integrala ezinbesteko xedea da emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren ibilbidean. Xede horrek adostasun handia lortu du eskola-komunitatean eta gizartean oro har. Hala ere, adostasun horretaz gain, ez da beti ulertzen eginkizun horren konplexutasuna; hezkidetzeta esaten zaio eginkizun horri.

Plan honek hezkidetzeta sustatzen du, hezkuntza-ikuspegi horren helburua genero-desberdintasunak etengabe desagertzea baita, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere. Gizonezkoen kulturaren eta emakumezkoen kulturaren alde positiboak berreskuratu nahi dira, eta era dikotomikoan genero bakar bati lotuta ez dauden jokabide-erreferente bihurtu, neska eta mutilen giza garapena bultzatzeko, eta identitate pertsonala duten subjektuak direla onartzeko, estereotipoak alde batera utzita. Hezkuntza-planteamendu hori funtsezkoa da genero-indarkeriari heltzerakoan.

Plan honetan, honela ulertzen dugu genero-indarkeria: batik bat emakumeen aurka burutzen den indarkeria, bai eta gizarteak gizona edo emakumea izateari buruz duen ustearekin bat ez datorren pertsona ororen aurka burutzen dena ere. Diskriminazioaren eta desberdintasun-egoeraren adierazpena da, gizonek emakumeak menderatzeko duten botere-harremanen sistema batean: patriarkatuan. Indarkeria hori era askotan agertzen da; bitarteko fisikoek, ekonomikoek edo psikologikoek eragin dezakete, baita mehatxu egiteak, beldurra eragiteak eta derrigortzeak ere. Eta horren ondorioa kalte edo pairamen fisikoa, sexuala edo psikologikoa izan daiteke, bai esparru publikoan gertatzen dena, bai esparru pribatuan gertatzen dena.

Azken batean, Sailaren iritziz, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko, ezinbestekoa da egungo eskola mistoa hezkidetzan oinarritutako eskola bihurtzea. Eskola horren erreferentzia pertsonak izango dira eta haien identitateen garapena; eskola hori zuzenagoa izango da denontzat, genero-, hezkuntza- eta gizarte-desberdintasunik gabeko eskola bat.

Ahalegin handi horretan ez gara hutsetik abiatzen. Dagoeneko hamarkada batzuk igaro dira gure erkidegoan hezkidetzari buruzko lehen hitzak entzun zirenetik. Hezkuntzari buruzko hausnarketa eta jarduna bultzatu zuten taldeen lehen adierazpenetatik (mugimendu feminista, sindikatuak, pedagogia-berrikuntzako mugimenduak) gaur egun arte, zenbait etapa bereiz daitezke, Emakunderen 2005eko azterketan¹ adierazten den bezala.

Hasieran, eragile nagusiak edo ia bakarrak, oro har, gizarte-mugimenduak izan ziren, eta bereziki, mugimendu feminista. Geroago, erakundeak ere garrantzia hartzen hasi ziren, eta programak, ekimenak eta legeak egiteaz arduratu ziren.

Gaur egun, gizarte-aldaketak izan dira, eta gizonei eta emakumei ez diete berdin eragiten (kultura-aniztasuna areagotu da; familia- eta harreman-ereduak aldatu dira; identitateak; krisiez kontzientzia hartzea, krisi ekonomikoaz besteak beste...). Erakunde feministek, gizarte-erakundeek eta hezkuntza berritzatzeko taldeek aldaketa horien berri eman dute, eta, horretaz gainera, era guztietako genero-indarkeriari aurrea hartzeko hezkuntza-ekimenak premiazkoak direla aldarrikatzen dute.

Sailaren asmoa, plan honetan, hezkidetzari buruzko lana indartzea eta sustatzea da, gizarte-aldaketa horiek, egindako bidea eta erronka eta eskaera berriak aintzat hartuz. Horretarako, funtsezkoa iruditzen zaio honako hauek aitortzea:

- Instituzio eta erakunde askoren ahalegina, master, ikastaro, material, programa eta abarren bitartez lan handia egin baitute irakasleen prestakuntzan laguntzen hezkidetzaren alorrean.
- Gure erkidegoko Hezkuntzaren historian, EAEko Berritze-guneetatik, hezkidetzaren mintegiak zabalkunde, proiektu eta ikastetxeen hezkidetzaren ereduaren arabera eraldaketan egindako lana.
- Azken urteetan, irakasleek eta ikastetxeek egin dituzten ekimenak eta esperientziak.
- Ikerketa zientifiko feministen arloan lortu diren aurrerapenak
- Gizarte- eta hezkuntza-mugimenduak eta mugimendu feministak egiten ari diren aldarrikapenak eta lana, hezkidetzarako fronte berriak irekitzen.
- Erakundeek eta taldeek (Emakunde, udalak, etab.) ikastetxeetan abian jarri dituzten programak, hezkidetzaren lantzeko eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko.

¹ Emakunde. (2005). *Emakumearen Euskal Erakundearen Hezkidetzaren Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak*. Gasteiz.

Eta aitorten horretatik abiatuta:

- Hezkidetzari eta genero-indarkeria prebenitzeari buruzko prestakuntza ikastetxeetan bertan indartzea, aldatzeko proiektuak bultzatzeko.
- Irakasleak prestatzea eta gizonen parte-hartzea lortzea, hezkidetzaren eta genero-indarkeria prebenitzearen arloan.
- Hezkuntzaren alorreko zerbitzu estrategiko guztiak inplikatzeko (Berritzeguneak, Hezkuntzako Ikuskatzailak, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza), plan hau abian jartzeko.
- Ikerketa sustatzea unibertsitateetatik eta Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundetik (ISEI-IVEI).
- Hezkuntza-komunitateko eragileekin lankidetzan aritzea, Plana garatzeko.

Eta azken batean, erakunde arteko koordinazioa sustatzea, gizarteak berdintasun-gaietan eskatzen dizkigun erronkei erantzun integrala eta globala eman ahal izateko.

1.2. Hezkuntza-komunitatearentzako erronkak

Balio sexistak emakumeen eta gizonen berdintasun-balio bihurtzea garrantzitsua eta konplexua da, eta hezkuntzaren alorrean genero-indarkeriari aurrea hartzea oso premiazkoa. Beraz, ezinbestekoa dugu hezkidetzaren lantzea. Horretarako, aurrerapenak aztertu behar dira, hezkidetzaren alorrean jarraitzen duten defizitak identifikatu behar dira eta hezkuntza-komunitateak dituen erronka berriak definitu behar dira. Erronkei heltzeko lana modu integratuan antolatu behar da, eskolako ikaskuntza guztietan eta hezkuntza-komunitate guztiaren parte-hartzearekin.

Hona hemen erronka horietako batzuk:

- A. Hezkidetzaren oinarritutako eskolaren eredia sakon aztertzea, eta genero-ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktiketan sartzea planteamendu integral batez.
- B. Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapenik gabe.
- C. Genero-ikuspegia eskola-porrotari aurre egiteko ekimenetan sartzea, eta hezkuntza jasotzeko eskubidea benetan unibertsala dela ziurtatzea, bai eta neska eta mutil guztiak hezkuntza-sisteman jarraitutasuna izan dezaten bermatzea ere, ikasle guztien aniztasuna aintzat hartuta (etnia, kultura, ekonomikoa, gizarte mailakoa, funtzionala, sexuala, etab.).

- D. Harreman afektibo-sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko heztea, aniztasun sexualean eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarrituta.
- E. Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.

A] Hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredia sakon aztertzea, eta genero-ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktikan sartzea planteamendu integral batez.

Berriki egindako ikerketek² berretsi dute eskola-sisteman, orain ere, sexismoa eta genero-estereotipoak gertatzen direla zenbait alderdiren bitartez, besteak beste: ikastetxearen beraren antolamendua, irakasleen jarrerak eta itxaropenak, curriculum akademikoa, ikasten diren eta ikasten ez diren gaiak, ikasliburuak eta ikasmaterialak, hezkuntza- eta lanbide-orientabidea, hizkuntza, espazioa, ikaskideekiko harremanak, irakasleekiko harremanak eta irakasleen arteko harremanak, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren metodologia, etab.

Ondoren, oinarritzko alderdi batzuk azalduko ditugu, ikuspegi integral batez eta modu eraginkorrean eta planifikatuan lan egin behar dela erakusteko.

A.1. Curriculum berraztertzea, genero-ikuspegia aintzat hartuz

Ikastetxeetan irakasten diren materiekin erlazionaturiko curriculum ofizialak eta ezkutuko curriculumak³ funtsezko eragina dute neska-mutikoen genero-sozializazioan; hau da, gure gizartean gizon izatea eta emakume izatea zer den adierazten diete, zein den gizarteak esleitutako espazioa (publikoa, pribatua), rola, sexu bakoitzari zer jokabide eskatzen zaion eta zein jokabide diren “desegokiak”.

Hezkidetzeta-gaietako adituek aztertu dute curriculum esplizituan gizonen gertaerei, ezaguerei eta esperientziei ematen zaiela garrantzia, eta emakumeen esperientzia eta jakintza kanpoan eta ikusezin geratzen dela eskolako gaietan eta hezkuntzako etapetan. Hortaz, transmititzen den kultura-herentziak androzentrikoa izaten jarraitzen du.

Gainera, gizarteak maskulinoztat jotzen dituen balioak eskolan modu inplizituan ematen dira eta gizarteak femeninoztat jotzen dituen balioen gainetik hierarkizatzen dira. Adibidez: lan-mundua, ordaindua eta publikoa,

² Hezkuntza eta Kultura Alorreko Agentzia Exekutiboa (ACEA Eurydice, Hezkuntzako Informaziorako Europako Sarea). (2010). *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*. Brusela. P9 Eurydice.

³ Hezkuntza-prozesuan modu inplizituan transmititzen diren ezaguerak, jarrerak eta balioak adierazten ditu.

pribatua den ordain gabeko etxeko lanaren eta zainketa-lanaren gainera, ordaindutako lana borondatezko lanaren gainera; ekoizpena osasunaren eta ongizatearen gainera; arrazionaltasuna hunkiberatasunaren gainera; lehiakortasuna lankidetzaren gainera; lehiaketa-kirolak jolasen gainera; bizkortasuna malgutasunaren gainera; hitza isiltasunaren gainera...

Erronka honi dagokionez, azpimarratu behar da gaitasunen garapenean oinarrituta dagoen curriculumak, aukera ematen digula alderdi kognitibotik haratago dauden alderdiak lantzeko, balioesteko eta ebaluatzeko. Alderdi horiek funtsezkoak dira ikasleen hezkuntza integralerako.

A.2. *Ikasliburu eta material didaktiko inklusiboak eta hezkidetzaren aldekoak aukeratzea*

Ikasliburuak eta materialak oro har gizarte-errealitatea, antolamendu-formak, balioak, emozioak adierazteko moduak, arauak, gizarte-, familia- eta harreman-ereduak deskribatzerakoan genero-estereotipoetan oinarritzen dira eta ez dute egungo gizarte-errealitate osoa adierazten.

Funtsezkoa da testuliburuak neskei zein mutili sexuaren araberako espektatibak mugatzen ez dituzten identifikazio ereduak eskaintzea. Argitaletxeak bazterkeria guztiaren aurka dauden lege-eskakizunetara egokitu dira. Ondorioz, egiaztagarria eta alderagarria da zenbat aurreratu den garai bateko testuliburuetan agertzen ziren gizon eta emakumeen arteko diskriminazio argietan, bai irudietan, bai agerpen kopuruetan edota bai pertsonaien protagonismoan. Nolanahi ere, egungo testuliburuak sakon aztertzen direnean ikus daiteke diskriminazioak, zoliagoa izan arren, hor jarraitzen duela⁴.

Estereotipo sexistei buruzko Europa mailako azterketa batean⁵, hizkuntza eta literaturako ikasliburuetakoa irudietan sexismo-adierazleak aurkitu zituzten, kuantitatiboak nahiz kualitatiboak. Alderdi kuantitatiboan, emakumeen irudikapen grafikoa, material horietan, gizonenaren erdia zen ozta-ozta (guztizkoaren % 32,95). Desberdintasun kualitatiboak ere aurkitu zituzten bi sexuen irudikapenetan; adibidez, irudien koloretan kolore argiak eta tonu arrosak zeuden emakumeen irudietan; karakterizazioak eta jokabideak estereotipo sexistetan oinarrituta zeuden; irudikapen espazialean, gizonak espazio publikoetan eta emakumeak espazio pribatuetan zeuden.

⁴ Pérez, C. eta Gargallo, B. *Sexismo y estereotipos de género en los textos escolares. ADDENDA a la ponencia IV LECTURA Y GÉNERO: LEYENDO LA INVISIBILIDAD*. http://www.uv.es/genero/_docs/public_edu/sexismo_txtos.pdf

⁵ Hezkuntza eta Kultura Alorreko Agentzia Exekutiboa (ACEA Eurydice, Hezkuntzako Informaziorako Europako Sarea). (2010). *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*. Brusela. P9 Eurydice.

Hori dela eta, baliabideak behar dira, irakasleek, ikasleek eta, oro har, ikastetxeek hauteman ditzaten emakumeen eta gizonen berdintasuna eta aniztasuna sustatzeko material egokiak, sexismorik eta genero-estereotiporik gabekoak.

A.3. *Trebatzea, ikasleei buruz jarraitzen duten itxaropenez jabetzeko*

Pertsona guztiak balio sexistak dituen gizarte batean hezi gara, eta genero jakin baten arabera sozializatu. Beharrezkoa da sozializazio berezi eta sexista horri antzematea, jakiteko noiz mugatzen dizkigun gure jokabideak, gure bizi- eta lanbide-itxaropenak, gure gaitasunak, etab.

Aipatutako azterketak *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*⁶ ondorioztatzen du irakasleak ez direla ondo konturatzen nola erabiltzen duten generoa, antolatze eta kategorietan sailkatzeko faktorea gisa. Ez dakite, beraz, generoari buruzko uste inplizituek zer-nolako eragin sakona duten ikasleen portaeran.

Azterketak dioenez, irakasleek uste dute berdintzatzen dituztela neskak eta mutilak, baina praktikan eta modu inkontzientean, pasibotasuna eta konformismoa sustatzen dute neskengan, eta independentzia eta banakotasuna mutilengan. Halaber, toleranteagoak dira mutilen portaera txarrarekin, naturala dela uste baita, eta arrazoi beragatik, espero dute neskek “etxean egiten diren lanak” egitea, hala nola ikaskideei laguntzea edo ikasgela garbitzea. Neskak ikasle hobeak direla ohartzean, horren arrazoa konduktuala dela esan ohi da, kognitiboa edo intelektuala baino gehiago; adibidez, hau da, neskak arretatsuagoak bide dira lanean, eta mutilak baino “gehiago saiatzen dira ikasketetan”.

Kontuan hartu behar den beste elementu bat irakasleen jarrera batzuk dira, batetik, “emakumezkoenak” diren arazo batzuen aurrean dituztenak, garrantzi gutxiak direla uste baitute; eta bestetik, mutil batzuen jarrera “mikromatxisten” aurrean dituztenak.

Itxaropen desberdin horiek direla eta, egiaztatuta geratu dira sufrimendu-egoera asko, norbaitek neskek edo mutilek jokatu behar duten bezala jokatzeko ez duenean gertatzen direnak. Neska izaten eta mutil izaten irakatsi egiten da, eta, horretarako, esaten zaie zer balio, zer sentimendu, zer jarrera, zer jokabide, zer sexu-joera, zer sexu-identitate edota zer genero-identitate, zer gaitasun, zer rol... onartu behar dituzten sexu batekin edo bestearekin jaiotzeagatik, eta arau hori hausten duenari zigorra ezartzen diote besteek. Horregatik, egun ere ohikoak dira baztertze-egoerak, neskato-mutikoen eta neska-mutilen arteko ahozko erasoak, baita

⁶ Hezkuntza eta Kultura Alorreko Agentzia Exekutiboa (ACEA Eurydice, Hezkuntzako Informaziorako Europako Sarea). (2010). *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*. Brusela. P9 Eurydice.

jazarpenak ere, janzkeragatik, izaeragatik, sexu-joaeragatik, jolaskide eta adiskide jakin batzuk edukitzeagatik, zenbait ohitura izateagatik, etab.

Ikusmolde edo itxaropen horiek guztiek maila inkontzientetik maila kontzientera igaro behar dute, esku hartzea ahalbidetzeko. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateko eragileak hezkidetza-gaietan etengabe eta mailaka prestatzea.

A.4. Espazioen erabileran, genero-analisia sartzea

Zenbait azterlanek eskoletako espazioak aztertu dituzte, baita nola erabiltzen diren ere, eta ondorioztatu dute genero-adierazlea erabakigarria dela. Garbi geratu da jolastokian eta jolasteko eremuetan espazioaren banaketa sexista dela oraindik ere. Jolasen hierarkiagatik, nesken eta mutilen jokabideengatik edo jolastokiaren espazioa antolatu gabe egoteagatik, mutilak erdialdean kokatzen dira eta neskak bazterretan.

Nabarmentzen den beste alderdi bat da ikastetxeetan futboleko jokatzeko ekipamenduei esleitzen zaizkien bitarteko eta baliabideetarako eta beste jarduera batzuk egiteko erabiltzen direnaren (naturaguneak, lorategiak, harremanetarako eta jolasteko jarduerak) arteko desoreka.

Errealitate horren aurrean, ikastetxeetako espazioen banaketa eta erabilera berraztertu behar da genero-ikuspegia aintzat hartuz, nesken eta mutilen, emakumeen eta gizonen beharrei, interesei eta itxaropenei erantzuteko.

A.5. Ebaluazioa berraztertzea, genero-ikuspegia aintzat hartuz

Azken urteetan, aurrerapen eta metodologia-aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira ikastetxeetan. Baina ez da ahaztu behar hezkuntzaren bitartez estereotipo sexistak ere transmititu ditzakegula.

Ebaluazio-metodoen neutraltasuna eta joera falta aldarrikatu badira ere, ikerketek⁷ egiaztatu dute generoen araberako joera izaten dutela ebaluazio-metodoek, batez ere azken urteetan, ikasleek banaka lortu beharreko errendimendu-helburuak nabarmendu baitira, baita ikastetxeek eta herrialdeek lortu beharrekoak ere. Joera horretan, gainera, nazioarteko azterketa batzuek ere eragina izan dute, hala nola PISA edo TIMSS izenekoek.

Ebaluazioan erabilitako probek eta testuek kritikak jaso dituzte, irakurketa-materialek jasotzen dituzten berberak, hain zuzen ere: egoera eta pertsonaia maskulinoak dira nagusi, emakumezkoak arinkeriaz tratatzen dira, eta hizkuntza eta irudi sexistak ageri dira. Beste alderdi aipagarri bat da neska/emakumeei kalifikazio baxuagoak emateko joera

⁷ Hezkuntza eta Kultura Alorreko Agentzia Exekutiboa (ACEA Eurydice, Hezkuntzako Informaziorako Europako Sarea). (2010). *Diferencias de género en los resultados educativos: medidas adoptadas y situación actual en Europa*. Brusela. P9 Eurydice.

dagoela, eta altuagoak mutil/gizonei, kalifikatu beharreko pertsonaren sexua jakiten denean. Hori dela eta, herrialde batzuetan ikasleen anonimotasuna (izena eta sexua) ezarri da.

Hezkidetzan aurrera egiteko ebaluazioa berraztatzeak ezinbestekoa egiten du irakaskuntza-ikaskuntzako metodologiak, ebaluazio-estrategiak, hezkuntza-laguntzak eta abar genero-ikuspegia aintzat hartuz berraztertzea.

A.6. Familiak hezkidetzan inplikatzeari

Ikaskuntzak zenbait testuingurutan egiten direnez eta horien arteko koherentzia eta jarraitutasuna bilatu behar denez, familien lankidetzaren funtsezkoa da heziketan. Hori dela eta, ezinbestekoa da prestakuntza jarraia eta partaidetza-espazioak eratzea eta familiek genero-berdintasuna bultzatzen beren seme-alaben heziketan.

Familiek eskolan izan dezaketen partaidetzari ekitean, ezin da alde batera utzi amek duten eginkizuna seme-alaben eskolatzeko-prozesu osoan⁸.

Horri dagokionez, agerian jarri behar da amek seme-alaben hezkuntzan duten eginkizuna, eta eginkizun hori balioetsi egin behar da, baina eginkizun hori aitekin modu orekatuan banatzea ere ezinbestekoa da. Beraz, erronka bat da aitek eskolan eta hezkuntzan duten parte-hartze aktiboa handitzea.

Adierazitako alderdi guztiek ezeztatu egiten dute hezkuntzaren alorrean dirauen irudipena; hau da, hezkidetzako eskola-eredua lortu dela dagoeneko. Aurrerapenak izan dira hezkidetzan oinarritutako eskola bat lortzeko lanean, baina alderdi askotan sakondu beharra dago oraindik ere. Horretaz gainera, hezkidetzari buruzko lana nahiko bakartia izan da: laguntza eta baliabide gutxirekin eginga, esparruan arduratsuak ziren hezkuntzako profesionalek borondatez eginga, beren ikastetxeetan aldaketa txikiak bultzatuz. Orain arte lortutakoa indartzea da erronka, baina alderdi horiek guztiak modu integrarean landu behar dira, hezkuntza-komunitate guztiaren inplikazioarekin, irakasleak trebatuz, ikastetxeen proiektuak berraztertuz eta aldatuz, parte hartzeko egiturak sortuz, arduradunak izendatuz, hezkuntza-orientabidea eta ikasgela lanerako abiapuntutzat hartuz...

⁸ Emakunde. (2005). *Hezkidetzaren Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak*. Gasteiz.

B] Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapez gabe.

Azken hamarkadetan aurrerapenak izan badira ere, genero-estereotipoek eragin handia dute oraindik ikasleen aukera pertsonaletan, profesioletan eta bizitzakoetan. Zenbait errealitate aipa ditzakegu, ondo adierazten baitute generoa erabakigarria dela ikasleen aukera pertsonaletan, profesioletan eta bizitzakoetan.

Adierazlerik argienetakoa da ikasketen derrigortasuna desagertu eta oinarrizko hezkuntzatik aldentzen garen heinean, gero eta handiagoak direla jokabide-ereduen desberdintasunak neskek eta mutilak egiten duten aukera akademikoetan. Orduan hasten dira ibilbide bereziak nesken eta mutilen artean, bai ikasketetarako sarbidean, bai aukeratzen dituzten adarretan⁹.

Batxilergoan, mutil gehienek modalitate zientifiko-teknikoa hautatzen dute; neska gehienek, berriz, gizarte- eta giza-zientziak aukeratzen dituzte. Aukera horiek gerora zer unibertsitate-karrera hautatu baldintzatzen dute.

Bereztua den hautatze akademikoak berekin dakar mutilak gizonen artean ohikoak diren adar profesionalen aldeko apustua egitea, lan horiek aintzat hartzen baitira gizartean, eta ordainsari onak baitituzte. Neskek, berriz, lan-merkatu iristeko zailtasun gehiago dituzte, eta iristen direnean, gehienetan kategoria profesional eta lanbide oso feminizatuetan aritzen dira, ordainsari txikiagoak eta gizartean prestigio txikiagoa duten kategorietan.

⁹ EUSTATEko 2011ko datuen arabera (Irakaskuntzaren estatistika):

-Emakumeen matrikulazioa batxilergoan gizonena baino pixka bat altuagoa da: % 52,6. Nolanahi ere, lanbide-heziketan, erdi-mailakoan eta goi-mailakoan, emakumeen ehunekoa ez da iristen % 38,4ra erdi-mailan, eta % 40,6 da goi-mailan.

-Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programetan (HLKP), mutilak ikasle guztien % 72 dira.

-2010/2011 ikasturtean, erdi-mailako lanbide-heziketako 25 adarretatik bik soilik betetzen dute parekotasun-printzipioa ikasgeletako osaketan (Komunikazioa, Irudia eta Soinua, eta Arte Grafikoak).

-Erdi-mailako Lanbide Heziketako ikasleen %78 adar feminizatuetan edo maskulinizatuetan dago matrikulatuta

-Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleen %56 adar feminizatuetan edo maskulinizatuetan dago matrikulatuta

-Hauek dira adar feminizatuenak: Irudi pertsonala, Gizarte- eta kultura-zerbitzuak, Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza

-Hauek dira adar maskulinizatuenak: elektrizitatea eta elektronika, energia eta ura, fabrikazio mekanikoa, informatika eta komunikazioak, instalazioa eta mantenimendua, zurgintza, altzarigintza eta kortxoak, itsasoa eta arrantza, garraioa eta ibilgailuen mantenimendua.

Bereizketa horiei dagokienez, Emakundek¹⁰ egindako *Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian* txostenean ageri den bezala, ezin da alde batera utzi gazteek, sozializazio-prozesu osoan, kanpoko presioak izan dituztela, hartu behar dituzten erabakietan eragiteko. Presio horiek familiaren inguruetik, adiskideen inguruetik (pare-taldeak), xede den inguruetik (erreferentzia-taldea) eta lan-merkatutik bertatik etor daitezke. Gainera, prozesu inplizitu eta sotil bat dago, nesken eta mutilen gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak modu bereizian bultzatzeko. Hori dela eta, hezkidetzak ezinbestekoa da generoa sozializazio-prozesu osoan orekatzeko, egokitzeko, konpentsatzeko eta neutralizatzeko. Prozesu horretan, bitarteko guztietan aritu behar da: irakasgaiak, irakasleen eta familien mezu esplizituak eta inplizituak, etab. Tutoretza ere gune pribilegiatua izan daiteke, ikasleei genero-estereotipoen ohartarazteko eta beren erabakitzean eragiten duten uste eta aurreiritzi sexistak desegiteko.

C] Genero-ikuspegia eskola-porrotari aurre egiteko ekimenetan sartzea, eta hezkuntza jasotzeko eskubidea benetan unibertsala dela ziurtatzea, bai eta neska eta mutil guztiek hezkuntza-sisteman jarraitutasuna izan dezaten bermatzea ere, ikasle guztien aniztasuna aintzat hartuta (etnikoa, kulturala, ekonomikoa, gizarte mailakoa, funtzionala, sexuala, etab.)

Gaur egun, hezkuntzaren alorreko kezketako bat mutilek neskek baino emaitza akademiko txarragoak dituztela da. Gainera, mutil batzuen artean joera handiagoa dago jokabide disruptiboak, diziplina-arazoak, jazarpen-arazoak, gatazkak konpontzeko trebetasun falta eta abar izateko.

Jarrera horiek eta eskola-porrota ez dira lotzen hezkuntzaren munduan genero-aldagaiarekin, baina oso garrantzitsua da aintzat hartzea mutilak zer maskulinitate-eredutan sozializatzen diren eta neskek zer feminitate-eredutan sozializatzen diren, ikasgelan dituzten jarrerak ulertzeko, bai eta haien irakaskuntza- eta bizitza-ibilbideari buruzko itxaropenak ulertzeko ere.

Aipatu dugun bezala, irakasleen itxaropen desberdinek eragina dute ikasleen jokabideetan. Alde horretatik, azpimarratu behar da jokabide inkontzienteak direla gehienetan, baina ondorio handia dutela ikasleen bizitzetan, portaera sexistak indartzen baitituzte. Adibidez, mutilei neskei baino gutxiago irakasten zaie esanekoak eta zintzoak izaten, ikaskideei laguntzen...; neskei, berriz, gutxiago irakasten zaie iniziatiba hartzen, beren iritzia izaten, asertiboak izaten... Horretaz gain, gaur egun mutil langile eta zintzoak bere gisakoen artean oso ondo ikusita ez daudenez, indartu egiten da ohiko maskulinitate-eredua.

¹⁰ Emakunde. (2001). *Portaera Maskulinoen eta Femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian*. Gasteiz.

Maskulinitate-eredu hegemoniko horrek zorigaizto handia eragiten du nesken eta mutilen artean, bai eta emaitza akademiko txikiagoak ere. Gainera, agresibitate- eta indarkeria asko eragiten ditu eskoletan, bai eta ikasteko motibazio baxua ere.

Erronka handienetako bat, hain zuzen ere, maskulinitate tradizionalarekin loturiko balio horiek indargabetzeko lan egitea da, mutilak hezkuntza-sisteman mantentzea eta haien eskola-porrotaren tasa jaistea eta errendimendua handitzea. Baina esparrua zabaltzea ere beharrezkoa da, eta neskek ere sartu behar dira eskola-porrotari ekitean.

Eurydice azterketak dioen bezala, *"Normalean, eskola-errendimenduan genero-etenari aurre egin nahi dioten politikek mutilen errendimendu eskasari erreparatzen diote. Herrialde gutxi batzuek soilik garatu dituzte programa bereziak mutilen irakurmen-trebetasunak hobetzeko eta neskek matematika eta zientzietan duten errendimendua hobetzeko"*.

Gainera, egitasmo globala egin behar da, eta arreta berezia jarri behar da genero-desberdintasuna beste desberdintasun batzuekin estal daitekeenean, eta, diskriminazio bikoitzeko edo askoko egoerak gertatzen direnean; egoera horiek interseksionalitate¹¹ kontzeptuak definitzen ditu.

Gure abiapuntua da hezkuntzarako sarbidea eskubide unibertsala eta derrigorrezkoa dela. Beraz, neskek nahiz mutilek eskubide hori badute gure testuinguruan. Hala ere, ez da ahaztu behar eskubide hori kasu guztietan, kolektibo guztietan eta gure erkidegoan dauden kultura ezberdinetako pertsonengan bermatu behar dela.

D] Harreman afektibo-sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezteko, aniztasun sexualean eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarrituta.

Azken urteetan, sexu-hezkuntzan aurrerapenak izan direla egiaztatu da; prestakuntza eta informazio gehiago daude eta balioak aldatu egin dira alor horretan. Kolektibo eta erakunde askoren ahaleginaren emaitza da hori, gazteen sexu-hezkuntza zenbait bidetatik lantzen ari baitira, besteak beste: ikastetxeak, familiak, udalak, gazte-taldeak, talde feministak, LGTTBI taldeak¹².

¹¹ *Interseksionalitate* terminoak aipatzen ditu diskriminazio-formen edo menderatze-sistemen artean –bi edo gehiago– izaten diren elkarrekintza estruktural eta dinamikoen ondorioak. Zehazki, arrazismoak, patriarkatuak, desabantaila ekonomikoek eta beste faktore batzuek zer-nolako eragina duten desberdintasun-mailak eratzten, eta nola egituratzen dituzten emakumeen eta gizonen, arrazen eta beste talde batzuen posizioak.

¹² Sigla hori hitz hauetatik dator: Lesbiana, Gay, Transexual, Transgenero, Bisexual eta Intersexual.

Hala ere, oraindik ere sexu-hezkuntzari buruzko kezka dago hezkuntzaren arloan. Izan ere, aurrerapenak egin badira ere, egiaztatuta dago harreman afektibo eta sexuarek, neurri handi batean, sexismoaren eragina jasaten dutela oraindik ere.

UPV/EHUK egindako azterketa batean¹³, frogatu da gazteen harreman afektibo-sexualetan, benetako gizon bat izateari edo neska on bat izateari buruzko ideiek garrantzi handia dutela, bai eta eredu femeninoek eta maskulinoek ere. Oro har, neskek eta mutilek gorputzaren garrantzia azpimarratzen dute, pertsona batenganako erakarpena sentitzeko. Dena dela, neskek “fisikoa” aipatzen dutenean, ezaugarri-multzo zabalagoarekin lotzen dute, alderdi bati garrantzi handia ematen diotela: jarrerari. Jarrera hori bat dator maskulinitatearen irudi tradizionalarekin; hau da, berdintasunean oinarrituta ez dauden jokabide eta balio batzuekin, hala nola nagusitasunarekin eta jabetasunarekin.

Beste ikerketa batzuek¹⁴ ideia hori berresten dute: gaur egun, gazte askok ez dituzte jokabide horiek (patroi tradizionalak) gaitzesten, nahiz eta berdintasunean oinarritutakoak ez direla ohartzen diren; zenbaitetan erakargarriak direla ere iruditzen zaie. Halaber, askotan, berdintasunean oinarritutako jarrerak adierazten dituzten mutilak ez dira behar adina erakargarri izaten. Neska askok mutilen artean berdintasunean oinarritutako balioak eta jarrerak balioesten dituzte adiskidetasun-harremanetan, eta neska askok bikotekide egonkorra aukeratzean ere bai. Hala ere, maskulinitate tradizionalako ereduarekin bat datozen mutilak erakargarriagoak iruditzen zaizkie beste harreman afektibo-sexualerako, noizean behingoetarako batez ere, ondo pasatzearekin loturiko harremanetarako hain zuzen.

Eredu horrekin bat etorriz, moral bikoitzari eusten zaio; hau da, harreman asko dituzten mutilak balioetsi egiten dira, eta gaitzetsi, berriz, gauza bera egiten duten neskak. Horren ondorioz, neskak desberdinu egiten dira: neska batzuk ligatzeko, alegia “objektu sexualarekin” parekatzen dira, eta beste batzuk harreman egonkorak izateko (neska onak). Era berean, handiagoa da jasaten duten berdinen arteko presioa sexu harremanak lehenago izan ditzaten, eta horren ondorioz, batez ere neskek, sexu askatasun gutxiago dute, harremanak izan nahi dituzten ala ez, zenbateraino eta zelan izan erabakitzerakoan.

¹³ Amurrio, Mila; Larrinaga, Ane; Usategui, Elisa; Del Valle, Ana Irene. (2008). *Genero-indarkeria Bilboko nerabe eta gazteen bikote-harremanetan*. Bilbao-Udala; Euskal Herriko Unibertsitatea.

¹⁴ Rios, O. eta Christau, M. *Más allá del lenguaje sexista. Actos comunicativos en las relaciones afectivo-sexuales de los y las adolescentes*. Revista Signos. Especial Monográfico 2. 311-326. or.

Ildo honetatik, EAEn egin berri den *Nerabeen sexualitatea Euskal Autonomia Erkidegoan* ikerketan egiaztatu da gazteen % 30ek inguru, 15 urterekin hasten dituztela sexu harremanak. Bestela esanda, hasierako adina jaitsi egin dela, alegia. Bestalde, ikerketako laginean ere agertu da adin guztietako emakumeen jarduera sexuala gizonena baino handiagoa dela, eta horrek adierazten du aldaketa gertatu dela 90eko hamarkadan egindako beste ikerketa batzuetako datuekin alderatuz.

Neskek eta mutilek gaur egun ere portaera-eredu desberdinak izaten dituztela eta jatorrian sexismoa duten portaera-ereduak direla jarraitzen da egiaztatzen. Izan ere, arestian aipatutako Javier Zapiainen ikerketako hainbat datu eta ondorioen argitan agerian gelditzen da neska eta mutilen artean jokabide ezberdinak daudela, hala nola:

- Neskek bikote egonkorraren barruan izan ohi dituztela sexu-harremanak. Mutilek, berriz, egoeraren arabera harremanak izateko joera dutela (noizbehinkako bikotekideekin).
- Neskek diote maiteminak eraginda hasten direla sexu-harremanetan; mutilek, berriz, esperimentatzeagatik.
- Erotismoaren garapena ez dela simetrikoa emakumeengan eta gizonengan. Emakumeak geroago hasi eta gutxiagotan masturbatzen direla¹⁵.
- Preserbatiboaren erabilerari dagokionez, nahiz eta 2005eko datuekin konparatuz gehiago erabili den, oraindik ere arbuatzen da. Hori dela eta larrialdiko kontrazepzioaren erabilera oraindik nahiko ohikoa da (sexu aktibitatea duten emakumezkoen % 37, gutxi gorabehera). Jokaera honek, besteak beste, ez ditu infekzio genitalak prebenitzen.
- Haurdun geratzen direnen tasa egonkor mantendu bada ere, ezin da hori lotu preserbatiboaren erabileraren gehitze soilarekin baizik eta, horrez gain, larrialdiko kontrazepzioa ere kontuan hartu beharko genuke.

¹⁵ Ildo horretan, ikerketa horretatik ateratako emaitzek baieztapen hori egiaztatzen dute: mutilen %96,1 eta nesken %35,6 masturbatu egin dira inoiz. Gómez Zapiain, Javier (2013).

Alderdi horietaz gain, aintzat hartu behar da heterosexualitatearen gizarte-araua urratzen duten sexu-identitateak eta aukera afektibo-sexualak ez daudela onartuta eta normalizatuta ikasgelan¹⁶; beraz, kasu askotan ezkutatu egiten dira eta sufrimendua eragiten dute.

Aipatutako *Nerabeen sexualitatea Euskal Autonomia Erkidegoan* azterlanean azaldutako datuak gorabehera, Euskadiko gazte eta nerabe gehienek modu osasungarrian integratzen dituzte sexu-jarduerak eta horiekin loturiko sentimenduak.

Baina datu horiek garbi adierazten dute sexismoa gainditu egin behar dela bai harreman afektibo-sexualetan eta baita bere beste agerpen ugarian ere, hala nola homofobian, lesbofobian edo transfobian, besteak beste.

Horretarako, hezkuntza-sistemak irtenbidea aurkitu behar die gaur egungo arazoei, datuek prestakuntza- eta baliabide-gabeziak erakusten baitituzte sexu-hezkuntza ikastetxeetan lantzeko¹⁷.

Eskolak sexualitatearen eta afektibitatearen alorrean oinarritutako gaitasunak eskuratzea erraztu behar du, emakumeen eta gizonen berdintasunean eta aniztasun sexualean oinarrituta, estereotipo sexistak eta gizartearen ezarpenak alde batera utzita. Hortaz, nerabeek, DBH amaitzean, behar afektibo eta sexualei irtenbidea emateko baliabideak izan behar dituzte, eta horretarako, berdintasunean oinarritutako harreman erakargarriak eskaintzen dituzten ereduetatik abiatu behar da, elkarrizketan, aukera pertsonalekiko eta jokabide guztiekiko errespetuan eta tratu egokian oinarrituta.

Alde horretatik, bultzatu behar den hezkuntza afektibo-sexualak ikuspegi biologizistak gainditu behar ditu, eta zenbait alderdi landu: sexu-identitatea eta hori nola erlazionatzen den genero-identitatearekin eta aniztasunarekin; desira, emozio propioa, eraikia eta garrantzitsua den aldetik, norberaren eta harremanen zorientasunerako; erakarpena, maskulinitate eta feminitate hegemonikoaren parametroetatik kanpo; harreman afektiboak eta/edo sexualak desiran, zaintzan, ongizatean eta

¹⁶ Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) egindako *Ikaskideen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn* (2012) azterketako datuak:

- DBHko ikasleen %23,6k dio ikusi duela nola baztertu duten ikaskide bat gay izateagatik; *Lehen Hezkuntzako hiru garren zikloan ere %12k dio horrelako jokaera baten lekuko izan dela.*
- *Lesbianatzat hartzen diren ikasleen kasuan, ehunekoak askoz apalagoak dira; DBHko ikasleen %7k baino apur bat gehiagok eta Lehen Hezkuntzako hiru garren zikloko ikasleen %5ek diote ikaskide bat arrazoi horrexegatik etengabe baztertu duteneko kasuak ikusi dituztela.*

¹⁷ Ikastetxeetako %18k soilik hartu dute parte sexu-hezkuntzako jardueretan; gainerako %82k ez. Ikastetxeen zailtasun nagusiak dira irakasleek ez dutela prestakuntzarik (%55) eta baliabideak eskasak direla (%43). Gómez Zapiain, Javier. (2013). *Nerabeen sexualitatea Euskal Autonomia Erkidegoan*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza.

konpartitzean oinarrituta, eta ez jazarpenean, kontrolean, abusuan, sufrimenduan edo genero-indarkerian oinarrituta.

E] Eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.

Genero-indarkeriak gazterian duen eraginaz kezkatuta dauden gizarte-sektore guztien iritziz, hezkuntza-sektorea funtsezko eragilea da genero-indarkeriari aurrea hartzeko.

Hezkuntza-komunitatea oinarrizko elementua da haurren eta gazteen prestakuntzan, eta, beraz, behar-beharrezkoa da eragile aktibo bihurtzea genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko: prebentzio goiztiarretik hasita, arazoa lehenbailehen detektatu eta arreta egokia eskaini behar da.

Emakume eta gizonen berdintasuna eta hezkidetzeta eskolan landuz gero, epe luzera sexismoa etengabe deusezta daiteke eta, horren ondorioz, genero-indarkeriari eusten dioten balioak eta portaerak ere bai. Hala ere, datuek erakusten digute berariazko esku-hartzeak egin behar direla genero-indarkeriari aurrea hartzeko, gizarte-arazo horri epe motzean erantzun eraginkorra eman ahal izateko.

Txostenek azaltzen dute, estereotipoek irauten duten arren, genero-indarkeriaren biktimak eta erasotzaileak oso gazteak direla.

Segurtasun Sailak eskainitako datuen arabera: 2012an bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima izan zirela salatu zuten emakumeen % 34k 30 urte baino gutxiago zuten.¹⁸ Askatasun sexualaren aurkako erasoak balira, zenbakiak argi eta garbi adieraziko lukete emakumeek zenbat eta gazteago izan orduan eta arrisku gehiago dutela mota horretako indarkeria sufritzeko. Izan ere, jasandako indarkeria jakitera eman duten biktima guztietatik % 66k¹⁹ 30 urte baino gutxiago du.

Erasotzaileei dagokienez, 2012an, bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria egiteagatik salatuak izan ziren %26k²⁰ 30 urte baino gutxiago zuten. Askatasun sexualaren aurkako erasoak balira, portzentaiak gora egiten du, erasotzaileen % 46k 30 urte baino gutxiago zuten²¹.

Kopuru horiek nahitaez bultzatzen gaituzte genero-indarkeriaren aurkako borroka hezkuntzaren alorrean sartzera, eta modu sistematikoan irakaslanean.

Lan horri ekiteko modua konplexua da, genero-indarkeriak era eta adierazpen asko baititu. Alde horretatik, hainbat alderdi hartu behar dira

¹⁸ % 32 18 eta 30 urtekoen tartean daude, eta % 2k 18 urte baino gutxiago dute.

¹⁹ % 34k 18 urte baino gutxiago dute eta % 32k 18 eta 30 urteen tartean.

²⁰ Erasotzaileen % 25 18 eta 30 urtekoan tartean daude eta % 1k 18 urte baino gutxiago dute.

²¹ Erasotzaileen % 35 18 eta 30 urtekoen tartean daude, eta % 11k 18 urte baino gutxiago dute.

kontuan, esku-hartzea nolakoa den eta erantzun beharreko indarkeria-mota nolakoa den.

Prebentzioaren esparruan, hona hemen kontuan hartu beharreko alderdi batzuk:

Sexismoa, ikasgeletan gatazkak eta ikaskideen arteko tratu txarrak azaltzen dituen faktore gisa

Mutilak sozializatzen diren maskulinitate tradizionalaren ereduak erraztu eta bultzatu egiten du gatazkak indarkeriaren bidez konpontzea eta boterea eta indarkeria erabiltzen ikastea. Horrela, nabarmendu behar da mutilek gehiago erabiltzen dutela indarkeria ikasgelan, eta hori genero-mandatuarekin dago loturik. ISEI-IVEI²² erakundearen txostenean, egiaztatu da bullying bidezko erasotzaileen ehunekoak handiagoak dela mutilen artean, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan. Biktimen ehunekoan gauza bera gertatzen da. Hau da, mutilek gehiago erabiltzen eta jasaten dute indarkeria.

Heteroarauak²³ betetzen ez dituzten sexu-joeradun ikasleei egiten zaien jazarpena gero eta gehiago ikusten den praktika bat da. Hala ere, *bullying* fenomenoaren barnean kidekoen artean izaten diren tratu txar sexistak eta sexualak ez dira aztertu modu espezifikokoan azterlanetan.

Homofobia, lesbofobia eta transfobia sistema matxista baten baitan sortzen dira, eta hark erabiltzen ditu genero aniztasuna mugatzeko baliabide gisa: oso baliabide eraginkorra da “normaltasunean” ezarritako, hau da, gizarte mailan onartutako “gizon” eta “emakume” ereduak eusteko.

Lehenago aipatutako ISEI-IVEIren ikerketak, *Ikaskideen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn*, galdera bat erantsi zuen 2012. urtean sexu-joerengatiko jazarpenaren inguruan. Hauxe izan zen emaitza: *“DBHko ikasleen % 23,6k dio ikaskide bat gay izateagatik etengabe baztertu dutela ikusi duela; Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ere % 12k dio horrelako jokaera baten lekuko izan dela. Lesbianatzat hartzen diren ikasleen kasuan, ehunekoak askoz apalagoak dira; DBHko ikasleen % 7k baino apur bat gehiagok eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen % 5ek diote ikaskide*

²² Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). (2012), *Ikaskideen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza.

²³ Sistema ideologiko eta kulturala, heterosexualitatea bete beharreko arautzat hartzen duena sexu/genero sisteman, eta, beraz, hauek baztertzen dituena: lesbianak, gayk, transexualak, transgeneroa, bisexualak eta intersexualak.

*bat arrazoi horregatik etengabe baztertu duteneko kasuak ikusi dituztela*²⁴.

Horregatik, ikertzen jarraitu behar dugu, eta galdeketak eta erabilitako metodologiak genero-ikuspegitik berraztertu, tratu txarren tipologia hori agerian jartzeko eta jakinarazteko. Gainera, irakasleei prestakuntza eman behar zaie, tratu txarren kasuak noiz diren sexistak eta/edo sexualak hauteman dezaten, eta homofobia, lesbofobia, transfobia jazarpenak aurreikusi eta horren aurrean jardun dezaten.

Internet bidezko jazarpenari edo tratu txarrei dagokienez (*cyberbullying-a*), aipatu behar da gero eta kasu gehiago daudela, non bazterte-egoeren atzean Internet bidezko jazarpen sistematikoko egoerak agertzen diren, eta irakasleentzat oso zaila da egoera horien berri izatea. Teknologia berriak, sarritan, gutxiesteko, jazartzeko, kalumniatzeko erabiltzen dira: argazki pertsonalak Interneten bidez banatzen dira, mutilak harro agertzen dira neskekin izandako harremanez, trofeoak balira bezala, rankingak egiten dira, mehatxuzko mezuak bidaltzen dira mugikorrek. Bizitza errealean gertatzen diren jokabide sexistak Interneten bidez hedatzen dira, eta anonimotasunean egiten direnez, inolako zigorrik jaso gabe egiten dira.

Horregatik guztiagatik, genero-ikuspegia sartu behar da ikasgelako bizikidetzan eta ikasgelako gatazken bitartekotzan eta konponketan. Izan ere, egoera, gatazka eta tratu txar askoren jatorria sexismoa da. Premiazkoa iruditzen zaigu jazarpen sexista eta sexuala *bullying* eta *cyberbullying* fenomenoaren barnean sakon aztertzea, baita genero-sozializazioak hain zuzen, mutilek maskulinitate-eredu tradizionala hartzeak zer neurritan eragiten duen fenomeno bietan eta biktima/erasotzaile rola hartzean ere.

Mikroindarkeriak

Oraindik ez dira ezagutzen hainbeste hautematen ez diren indarkeriak –mikroindarkeriak²⁵– eta, beraz, onartu egiten dira. Horregatik, ia ez da ezer egiten haien aurka, nahiz eta ondoez eta min handia eragiten duten. Indarkeria mota horrek murriztu egiten ditu botere pertsonala, autonomia, askatasuna, nesken autoestimua, eta maskulinitate tradizionalako mandatua betetzen ez duten mutilen autoestimua. Gainera, hautematen ez direnez, oro har inolako erantzukizunik gabe egiten dira.

²⁴ Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). (2012). *Ikaskideen arteko tratu txarrak Lehen Hezkuntzan eta DBHn*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzza.

²⁵ Mikroindarkeriak: normalizat hartzen diren eta ia nabaritzen ez diren kontrolak eta botere nagusikeriak. Ruiz-Jarabo, C, Blanco Prieto, P. (2004). *La violencia contra las mujeres. Prevención y detección*, 87. Díaz de Santos argt.

Izan ere, oso ohikoa da gehienbat neskek jasaten duten mikroindarkeria horien larritasuna ukatzea. Oro har, erasoak minimizatu egiten dira, adinari dagozkion jokabideetat hartzen baitira, inolako ondoriorik ez balute bezala; irakasleek eta gurasoek ez dute sinesten beren ikasle edo semeek erasotzaileak izan daitezkeela, eta, askotan, susmoa izaten da neskek ez ote duten kontua puztu, eta leporatzen zaie ez dutela ulertu, okerreko mezuak bidali dituztela edo gaizki ulertu dituztela jasotako mezuak; azken batean, neskek bereizteko eta onartzeko gaitasunik ez dutela pentsatzen da.²⁶

Publizitateak eta komunikabideek indartu egiten dute agerikoa ez den eta natural bihurtu nahi den indarkeria, ahalmen handia baitute balioak, ideologiak eta pentsamenduak transmititzeko. Oraindik ere badira emakumeak gizonen mendeko direla indartzen dituzten jarrerak, balioak eta mezuak, eta, gainera, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, garrantzia kendu eta erabiltzera bultza dezakete.

Harreman- eta erakarpen-ereduak

Sarritan, harreman afektibo eta sexualak aukeratzean, erakarpena eta desira estu lotzen dira menderatzearekin, kontrolarekin eta sufrimenduekin, eta erabat aldentzen dira maitasunetik eta grinatik. Pertsona posesiboekiko erakarpena sentituz gero eta jeloskortasuna maitasunarekin identifikatuz gero, mendekotasuna onartzen da, autoritatea ezartzen da eta bizitzako elementu garrantzitsuei eta norberaren espazioari uko egiten zaie nesken kasuan.

Mutil batzuek neska batzuekin duten jokabidea²⁷, askotan, maitasun-erakusgarritzat hartzen da eta ez genero-indarkeriaren adierazletzat; esate baterako, adiskideak, ordutegiak, arropa, mugikorra, sexualitatea, gorputza... kontrolatzea. Berdintasunean oinarritutakoak ez diren eskema horiek ez dira harreman heterosexualetan bakarrik gertatzen.

²⁶ Emakunde. (2011). *Sexu Erasoak. Nola bizitzen diren, nola ulertzen diren eta nolako arreta ematen zaien*. Eusko Jaurlaritz. Herrizaingo Saila Vitoria-Gasteiz.

²⁷ Emakumearen Institutuak *Nerabeen arteko genero-indarkeriari buruzko ikerketaren arabera*, inkestatutako mutilen % 30,7k uste du ez dela tratatu txarra bikotekideari " ez duela ezer balio esatea"; beste % 22,8k iritzi bera du "beldurra sentiarazteari dagokionez"; eta % 35ek, berriz, "egiten duen guztia kontrolatzea" dela-eta.

Botere-erlazioetan oinarritutako esperientzia horietako askok²⁸ joera bat ezar dezakete neska eta mutil batzuek bizitzan izango duten harreman afektiboetan. Batzuetan, berdintasunean oinarritua ez den harreman bat hurrengo indarkeriazko harreman batzuen hasiera izan daiteke. Aldi berean, berdintasunezko harremanak babesgarriak izan daitezke, eta oinarritzko apendizaiak, norberaren burua babesteko, eta, gerora, etor litezkeen harreman ez-berdintzaileak hautemateko.

Gainera, berdintasunari lotutako oinarritzko ikaskuntza jasotzen bada, botere-erlazioen edota erlazio asimetrikoen ondorioak gutxitu daitezke. Harreman horiek, lehen esan bezala, sarritan gertatzen dira neska-mutilen artean, eta biolentzia izatera iristen ez badira ere, gizakiaren garapen beteari modu negatiboan eragiten diote.

Horrenbestez, gazteekin lan egin behar da, hausnartzeko eta genero-indarkeriari eusten dioten balio, erreferente, jarrera eta jokabide sexistak aldatzeko. Alderdi horiek guztiak sozializazio-prozesuan integratzen ari direnez, berariaz eta esplizituki esku hartu beharko da prozesu horretan. Ikasleek gai izan behar dute genero-indarkeria identifikatzeko eta arbuiatzeko. Tratu oneko harremanak erakargarri bihurtu behar dira; hau da, harreman osasuntsu eta positiboak.

²⁸*Berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa nerabezaroan* azterketako datuak. (2010). Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunerako Ministerioak egina. Hezkuntza Sailak ere parte hartu zuen.

-Mutilen %13,1ek aitortu du tratu txarrak noizbait erabili dituela edo saiatu dela erabiltzen bikotekide duen neskarengan, eta nesken %9,2k aitortu du tratu txarrak pairatu izana.

-Mutilen %26k ez du uste "bikote-harremanak kontrolatzea" tratu txarra denik; %30,7k ez du uste tratu txarra denik "ez duela ezer balio esatea"; eta %35ek ez du uste tratu txarra denik "egiten duen guztia kontrolatzea" (adierazpen horrekin bat dator nesken %26,2).

Nagusitasun-mendetasuneko ereduak dagokienez, mutilen %12,2 ados dago "bikote-harreman ona izateko hobe da emakumeak gizonari aurka ez egitea" adierazpenarekin.

-Ageriko indarkeria fisikoari dagokionez, mutilen %6,8k uste du, senarrak emaztea erasotzen duenean, emazteak egoera hori eragin duen zerbait egin duela.

-Nerabeen %25 abusu psikologikoak edo fisikoak pairatzen ditu bikotekidearekin elkartzen direnean; institutuan erasoak jasan zituzten neskek arrisku handiagoa zuten unibertsitatean ere jasateko, eta gerora ere bai; gaztaroan biktima izateko posibilitatea oso loturik dago nerabezaroan indarkeriazko harremanak izatearekin, haurtzaroko tratu txarrekin baino gehiago. James, West, Deters eta Armijo (2000).

Detekzio goiztiarraren esparruan, arreta eraginkorra lortzeko:

Detekzio goiztiarra premiazkoagoa suertatzen da zenbait egoeratan eta zenbait gizataldetan. Hala, detekzio horrek aukera emango digu esku hartzeko, eta gerta litezkeen kalteak saihesteko. Honako hauek dira gizatalderik eta egoerarik ahulenak:

Genero-indarkeria jasatzen duten emakumeen seme-alabak

Berdintasunerako Estatu Idazkaritzak 2012an egindako genero-indarkeriari buruzko makroinkestak lehen aldiz erreparatu zion genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen seme-alabei. Hortik ondorioztatzen denez, 840.000 adingabeko beren amen aurkako genero-indarkeriaren arriskupean egon dira azken urtean, eta 517.000k erasoak jasan dituzte testuinguru horretan.

Inkesta horrek adierazten du tratu txarrak hartutako emakumeen % 77k seme-alabak dituztela, eta kasuen % 54,7an adingabeei "zuzenean pairatu" zituzten genero-indarkeriazko egoerak.

Bestalde, *Save the Children* erakundeak (2011) adierazten duenez, 016 telefono-zenbakian jasotako 30.106 deietatik, 2007ko irailaren 3tik 2010eko urriaren 31ra, % 92 emakume-amarenak izan ziren.

Kopuru kezagarri horiek direla eta, azken urteetan aztertzen ari da genero-indarkeriak zer-nolako eragina duen neskato eta mutikoetan. Haur horiek indarkeria mota horren biktima zuzenak dira. Adingabe, nerabe eta/edo pertsona heldu horiek berekin daramatzate aitak edo amaren mutil-lagunak amaren aurka erabiltzen zuen tratu txarra ikustearren, entzutearen edo susmatzearen ondorioak.

Genitalen mutilazio arriskua duten neskak

Orain dela gutxi arte hauteman ez diren emakumeen aurkako indarkeria-egoerak azaltzen dira zentroetan, eta nahitaezkoa da lehenbailehen detektatzea; adibidez, mutilazio genitala pairatzeko arriskuan dauden neskak.

Hezkuntza premia bereziak dituzten neskek, haurrak eta nerabeak.

Genero-indarkeriaren eta jazarpenen aurrean, dela sexuagatik dela sexismoagatik, ezintasunen bat duten neskek, haurrak zein nerabeak, dira ahulenak. Kasu honetan ere, giza talde horretako mutilek ere jasan ditzakete jazarpenak edo erasoak; edota beste ikaskide batzuek balia ditzakete erasotzeko edo beste batzuk jazartzeko.

Estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako arauen arabera, irakasleek emakumeen eta neska-mutilen aurkako indarkeriazantzuak jakinarazi behar dizkiete ikastetxeetako zuzendaritza-organoei. Horregatik, baliabideak eta tresnak eskaini behar dira, hala nola adierazle-sistemak, irakasleek eta ikastetxeak aukera izan dezaten hezkuntza-sisteman zer genero-indarkeria gerta daitezkeen jakiteko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta erantzun eraginkorreko mekanismoak abian jartzeko. Horrela, ikastetxea genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabide ere bihurtuko da, biktimak indarkeria jasaten duten adingabeak izan edo amak izan.

1.3. Esparru juridikoa

Hezkuntza da emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko politikari dagokienez gehien araupetutako arloetako bat. Hainbat araudi, gomendio, plan eta abarrek bultzatzen dute hezkuntza-sistema aktiboki lan egitera hezkidetzazko eskola-eredu bat lortzeko, eskola mistoa gainditzea eta pertsonak haien garapen integralari begira heztera, sexuaren araberako estereotipoak eta rola alboratuz eta era guztietako bazterkeria eta indarkeria gaitzetsiz.

Jakin badakigu hezkuntza-sistema oso sozializazio-eragile garrantzitsua dela, eta herritar guztien identitatea eratzen esku hartzen duela. Horregatik, sektore estrategikoa da emakume eta gizonen arteko harremanetan balioak alda ditzagun gizarte bidezko eta berdintasunezkoago bat lortzeko bidean. Hain zuzen ere, hezkuntza-sistemak eta eskolak erantzukizun saihestezina dute emakume eta gizonen arteko berdintasunean eta emakumeen arteko indarkeria desagerrarazteko ahaleginean aurrera egin dezagun.

Eusko Legebiltzarrak onartutako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- aitortzen du zer eginkizun nagusi betetzen duen hezkuntza-sistemak berdintasunaren arloan. Ildo horretatik, III. tituluan, kapitulu oso bat dago hezkuntzaren esku-hartze arloan berdintasuna sustatzeko neurriei buruz, hala unibertsitateko irakaskuntzan, nola unibertsitateaz kanpokoan.

Baina, 4/2005 Legeaz gain, hezkuntza-arloan berdintasuna sustatzeko araudi-esparru zabala dago: bai berdintasunaren inguruko berariazko

araudia —hezkuntza-administrazioek beren politketan emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak garatzeko artikuluez osatua—, bai sektoreko araudia; hau da, hezkuntzaren arloko berariazko araudia, gai horretan bete beharreko mandatuak jasotzen dituena.

Hezkuntzan berdintasuna sustatzeko araudia bere luze-zabalean barne hartzea ezinezkoa denez, erreferente nagusitzat jotzen ditugun arau, akordio eta planetako batzuen bilduma laburra egin dugu kapitulu honetan.

Berdintasunaren eta hezkuntzaren arloko erreferentziako esparru juridikoaren laburpen-taula

Hezkuntzaren arloko esparru juridikoa

1. 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
2. 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
3. 201/2008 Dekretua, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

Berdintasun-politiken arloko esparru juridikoa

1. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa.
2. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
3. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko.
4. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana*.
5. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde Arteko II. Hitzarmena.
6. Ministro Batzordearen CM/Rec (2007) 13. gomendioa estatuei, hezkuntzaren alorrean genero-ikuspegia aintzat har dezaten
7. 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

* Gobernu Kontseiluaren onespeneren zain, 2013ko urriaren 30ean

Hezkidetza zeharka txertatuko duen hezkuntza-politika baterantz

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak -Euskal Eskola Publikoari buruzkoak- 3. artikuluko 1. puntuan definitzen duenez, gure eskola izan behar da anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura aldetik ingurunean errotua, partaidetzakoa, desberdintasunen berdintzailea eta aniztasunaren bateratzailea. Horrez gain, eskolaren helburuen artean dugu *“irakasten denaren hezkidetza zko izaera bermatzea”*.

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak -Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- helburu hori zabaltzen du eta horretan sakontzen du; hala, 28. artikuluan hezkuntza-sistema premiatzen du hezkidetzeta-eredu bat gara dezan. Zehazki, honako hau adierazten du:

Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrear.

Hezkuntzaren eremuko genero-zeharkakotasunari dagokionez, azpimarragarria da *Ministro Batzordearen CM/Rec(2007)13. gomendioa estatuei, hezkuntzaren alorrean genero-ikuspegia aintzat har dezaten*, non estatu kide guztiei eskatzen zaien askotariko neurriak har ditzatela genero-ikuspegia hezkuntza-sistemako hainbat eremu eta mailaetan txertatzeko.

Aipatzekoa da araudia, bai berdintasunaren ingurukoa bai hezkuntzako berariazkoa, bat datorrela hezkuntza-sistemako alderdi horietan esku hartzeko premia azpimarratzeko orduan, emakume eta gizonen aukera-berdintasunean aurre egin ahal izateko.

Alderdi horien artean, honakoak nabarmendu daitezke: curriculumaren edukia, ikasmaterialak, egiturekin eta pertsonekin zerikusia duten neurriak, hezkuntza-sistemako langileen trebakuntza, ikuskaritzalana, berdintasun-arduradunaren figura Ordezkaritza Organo Gorenetan eta genero-indarkeriari erantzuteko neurriak eta politikak.

Hezkuntza-politiketan genero-zeharkakotasuna erregulatzen duten arauak:
4/2005 Legearen 28. art.
3/2007 Legearen 23. art.
1/2004 Legearen 4. art.
2/2006 Lege Organikoaren 1. eta 2. art

1.3.1. Curriculumaren edukia

Otsailaren 1eko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 29. artikuluan ezartzen duenez, Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzeta-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean:

- a) Emakumeei eta gizoni esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.

- b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- c) Beharrezko ezagutzak sartzea, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.
- d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ere.

Era berean, Legeak adierazten duenez, Hezkuntza Administrazioak oinarrituko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ikastearekin.

Curriculumean genero-zeharkakotasuna erregulatzen duten arauak:
4/2005 Legearen 29. art.
3/2007 Legearen 24. art.
1/2004 Legearen 4. art.
2/2006 Lege Organikoaren hobeita bosgarren xedapen gehigarria eta 17., 18., 23., 24., 25., 33., 40. eta 66. art.
EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

1.3.2. Ikasmaterialak

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 30. artikulua honakoa xedatzen du ikasmaterialei buruz:

- Debeku da pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen testu-liburu edo ikasmaterial oro zabaldu eta erabiltzea Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuek eta beste ikasmaterial guztiak, inola ere, aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazi diren hezkidetzako helburuak barneratuta izan behar dituzte. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu behar dute.

Ikasmaterialak erregulatzen dituzten arauak:
4/2005 Legearen 30. art.
3/2007 Legearen 24. art.
1/2004 Legearen 6. art.
2/2006 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarria

1.3.3. Koordinaziorako pertsonak eta egiturak hezkuntza-sisteman

Hezkuntza-sistemako profesionalen erregulazioari dagokionez, araudiak adierazten du, besteak beste, beharrezkoa dela hezkuntza-sistemako langileek hezkidetzan prestakuntza izatea.

Hala, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau dio 31. artikuluan:

Beren zereginetan genero-ikuspegia integratzeko, hezkidetzan trebakuntza zehatza jaso duten langileak izango dira hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu eta berritzeaz arduratzen diren organoetan eta irakasleen laguntzarako zerbitzuetan.

Horrez gain, hirugarren xedapen gehigarriaren 4. puntuak honakoa adierazten du otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 31. artikuluari buruz:

Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, hezkuntza ebaluatu, ikertu eta berritzatzeko ardura duten organoen eta irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostu zerrenda aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko dituzte; horretarako, hezkidetzaren arloko gaikuntza behar duten plazetarako beharkizun bereziak txertatuko dira.

Beste egitura batzuei dagokionez, hala nola Ordezkeri Organo Gorenak, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak -genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoak- honakoa ezartzen du 8. artikuluan:

Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko eskola-kontseiluek bultzatzen dutela hezkuntza-neurriak hartzea gizonen eta emakumeen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasuna, suspertzeko. Xede berarekin, Estatuaren Eskola Kontseiluan ziurtatuko da ordezkatuta izatea Emakumearen Institutua eta, nazio-lurralde guztian sustraituta izanik, emakumeen interesak defendatzen dituzten erakundeak.

Gerora, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak -Hezkuntzari buruzkoak- ikastetxeetako berdintasun-ordezkarien figura erregulatu zuen, 126.²⁹ eta 127.³⁰ artikuluetan.

Berdintasunaren arloko araudiak erregulatu duen beste alderdi bat da emakumeek eta gizonak irakaskuntzan presentzia orekatua izatea.

Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak honako hau ezartzen du 31.2 artikuluan:

Koordinaziorako pertsonak eta egiturak erregulatu dituzten arauak:

4/2005 Legearen 31. art.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde Arteko II. Hitzarmena

3/2007 Legearen 24. art.

1/2004 Legearen 8. art.

2/2006 Lege Organikoaren 126. eta 127. art.

Hezkuntza Administrazioak zera bultzatuko du: emakume zein gizon irakasleek presentzia orekatua izan dezatela jakintza-arlo eta hezkuntzako etapa ezberdinetan, eta halaber ikastetxeen zuzendaritza-organoetan.

1.3.4. Prestakuntza

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak -Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- honakoa dio 32. artikuluan:

1. Hezkuntza Administrazioak hezkidetzari buruzko prestakuntza-planak jarriko ditu abian; plan horiek irakaskuntzako profesionalei zuzenduta egongo dira, eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztiak hartuko dituzte beren baitan.

Prestakuntza erregulatu duten arauak

4/2005 Legearen 32. art.

3/2007 Legearen 24. art.

1/2004 Legearen 7. art.

Ikastetxeetako prestakuntzari dagokionez, honakoa xedatzen du:

2. Ikastetxe bakoitzak prestakuntza-plan horiek abian jartzerakoan neurri egokiak ezar ditzan, Hezkuntza Administrazioak beharrezko egokitzapenak egingo ditu ordutegian eta antolaketan. Gainera, mekanismoak ezarriko dira plan horietan aurreikusi diren egutegi eta ordutegiek eragindako ikasleei erantzuteko.

Irakasleen etengabeko prestakuntzari dagokionez, Legeak hau ezartzen du:

²⁹ 126.2. artikulua. Ikastetxearen Eskola Kontseilua eratu ondoren, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatuko duten hezkuntza-neurriak bultzatzeko pertsona bat izendatuko du.

³⁰ 127.g) artikulua. Ikastetxearen Eskola Kontseiluaren eskumena izango da ikastetxeko elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta gatazken konponbide baketsua –bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta sozialaren eremu guztietan– bultzatzeko neurriak eta ekimenak proposatzea.

3. Irakaskuntzako profesionalei –banaka zein ikastetxeen bidez– zuzentzen zaien etengabeko prestakuntzarako eskaintzak, bere edukietan, zeharka, hezkidetzako filosofia barneratu behar du, eta, horrezaz gain, hezkidetzari buruzko ikastaro zehatzak jaso behar ditu.

1.3.5. Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizuna

Bai 4/2005 Legeak bai maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak ikastetxeek berdintasuna sustatzeko ezarritako neurrien jarraipena egiteko ardura ematen diete hezkuntza-ikuskaritzako zerbitzuei.

Bestalde, abenduaren 28ko 1/2004 Legeak honakoa ezartzen du 9. artikuluan:

Hezkuntza-ikuskaritzaren zerbitzuek zainduko dute kapitulu honetan jasotako printzipio eta balioak aplikatzea hezkuntza-sisteman, emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna suspertzeko.

Hezkuntza Ikuskaritzaren lana erregulatzen duten arauak
1/2004 Legearen 9. art.
2/2006 Lege Organikoaren 151. art.

1.3.6. Genero-indarkeriaren detekzioa eta hari aurre egitea

Genero-indarkeriako kasu bat antzematean hezkuntza-komunitateak nola jokatu behar duen erregulatu du batez ere berdintasunaren arloko araudiak.

Alde horretatik, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak -Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- hau ezartzen du 31. artikuluan:

Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman behar diete emakumeen eta neskatu-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria-zantzu oro.

Ilido beretik, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenean, non parte hartzen duen, 2009. urtetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, hezkuntzaren arlorako jardura-protokolo bat jaso da, etxeko tratu txarreko edota sexu-erasoko kasu baten aurrean hezkuntza-komunitateak nola jokatu behar duen zehazten duena.

Genero-indarkeriazko egintzen ondorioz bizilekua aldatu behar izan duten adingabeei dagokienez, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak - genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoak- honakoa ezartzen du 5. artikuluan:

Genero-indarkeriaren detekzioarekin eta hari aurre egitearekin lotutako alderdiak erregulatzen dituzten arauak
1/2004 Legearen 5. art.
2/2006 Lege Organikoaren hogeita batgarren xedapen gehigarria.
Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde Arteko II. Hitzarmena.

Administrazio eskudunek berehalako eskolatzea ezarri beharko dute, genero-indarkeriazko egitateen ondorioz bizilekua aldatu behar denean, eta horrek seme-alabengan ondorioak dituzten.

Bestalde, maiatzaren 3ko 2/2006 Legeak -Hezkuntzari buruzkoak- hau dio hogeita batgarren xedapen gehigarrian:

Genero-indarkeriako ekintzen edo eskola-jazarpenaren ondorioz ikastetxez aldatu behar duten ikasleen berehalako eskolatzea ziurtatuko dute hezkuntza-administrazioek. Halaber, ikastetxeek ikasle horiei arreta berezia eskaintzeko aukera erraztuko dute.

2. Planaren oinarriak

2.1. Lanketa prozesua

Hezkidetzazko eskola-eredu baterantz aurrera egiteko eta genero-indarkeria prebenitzeko, erantzun integral bat eman behar da, hezkuntza-komunitate osoa engaiatu behar duena: irakasleak, ikasleak, familiak, hezkuntza-administrazio langileak... Horretarako, funtsezkotzat jotzen da genero-indarkeria erazteko ahaleginean urteak daramatzaten eta berdintasunaren arloan eta bazterkeriaren aurkako borrokan espezializatuta dauden pertsona, eragile eta erakundeen eskarmentua, ekarpenak eta laguntza aintzat hartzea.

Premisa horrekin, Plana taxutzeari ekin zitzaionetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hainbat eragileren parte-hartzea bultzatu du, besteak beste honako hauenak: hezkuntza-sistemako langileak, hezkuntza-administrazio langileak, berdintasunaren aldeko erakundeak eta bazterkeriaren aurka lanean ari diren eragileak.

Parte-hartze hori errazteko, bi lantalde sortu dira:

↳ Hezkidetzeta-batzordea

Batzorde horretan 15 pertsonak parte hartu dute. Pertsona horietako asko hezkuntzaren alorrekoak dira: irakasleak, irakasleei laguntzeko zerbitzuetako langileak, Hezkuntza-ikuskaritzakoak, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) eta Euskadiko Eskola Kontseilukoak. Beste asko eremu eta esparru ezberdinetako kideak dira: Gazteria Zuzendaritza, Emakunde, Berdindu, UPV-EHU, Euskadiko Eskola Kontseilua eta abar.

Batzordearen eginkizuna Plana lantzeko oinarriak ezartzea izan da. Hezkidetzaren eta genero-indarkeria prebenitzaren arloko beharrezkoen baterako diagnostiko bat xedatzen ahalegindu da, hainbat ikuspegi, irizpide eta lan-eremu barne hartuz, esparru komun horretatik abiatuta bete beharreko helburu estrategikoak finkatu eta laneko plan bat diseinatzeko.

↳ Planaren talde eragilea

Hezkuntzan eta berdintasun-politiketan eskarmentua duten 4 pertsonak osatzen dute, bai irakaskuntzaren bai hezkuntza-administrazioaren arloetakoak.

Taldearen eginkizuna izan da hezkidetzeta-batzordeari hausnarketarako gaiak proposatzea eta, bestalde, batzordean egindako proposamenak eta ekarpenak sistematizatzea eta Planari koherentzia ematea.

Talde hauen lana abiapuntu hartuta, Planaren lehenengo zirriborro bat sortu zen, beste erakunde, gizarte eragile eta organismoek helarazi zitzaiena. Horrezaz gain Plana Irekia atarian zintzilikatu zen, edonork aztertu eta ekarpenak egiteko aukera izan zezan.

Planak izaera irekia eta malgua dauka, eta, hain zuzen ere horregatik, dokumentu bizia da, gaian aurrera egiteko ildoak definitzen dituena, epe labur zein ertainera. Hala ere, malgutasuna eduki behar du ikuspegi, ikasketa eta errelitate berriak txertatzeko.

2.2. Eginkizuna: nahi dugun eskola

Plan hau landu da hezkidetzazko eskola-eredu bat bermatzeko, sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak alboratuta pertsonen garapen integralean oinarrituko dena; ikasleak era guztietako bazterkeria eta genero-indarkeriaren gaitzespenean heziko dituena, eta orientazio akademiko eta profesional ez-sexista eskainiko duena, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien partaidetzaz eta inplikazioaz.

Azken batez, eskola-eredu bat nahi dugu:

- Sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak ezabatzen lagunduko duten berdintasunezko harremanak sustatuko dituena, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskainiko zaizkiela bermatzeko, baina bakoitzaren identitatea oinarri hartuta, eta ez inposatutako ereduak.
- Curriculumean txertatuko dituena emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial, zientifiko eta historikoa.
- Ikasleen autonomia indartuko duena, bizi-proiektu autonomo bat izan dezaten eta beren egungo eta etorkizuneko beharizanen ardura har dezaten, bai arlo publikoan bai pribatuan, hala etxeko lanetan nola pertsonak zaintzeko orduan.
- Ikasle guztiek hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatuko duena, garaia baino lehen eskola utz dezaten eragotziz, eta genero, gizarte, ekonomia, kultura, etnia edo gaitasun maila desberdinengatik sortzen diren zailtasunak hausteari arreta berezia eskainiz.
- Orientazioa eskainiko duena, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzapenik gabe egin daitezten.
- Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztien prebentzioan aktiboki lan egingo duena.

- Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen detekzio goiztiarrean engaiatuko dena.
- Aniztasunean eta emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren errespetuan eta sexu-identitateen eta –joeren errespetuan oinarritutako bizikidetzeta-ereduak sustatuko dituena, gizarteko aurreiritziak eta inposizioak baztertuz.
- Espazio seguru eta orekatua LGTTBI ikasle guztientzat, sexu-joera, sexu-identitatea edota genero-identitatearengatiko era guztietako bazterkeria, jazarpen edota erasoetatik babestuta sentituko diren espazioa.
- Ikasleei beren harremanak berdintasunetik, errespetutik, alaitasunetik, askatasunetik... bizitzen lagunduko diena, jarrera bortitzak, matxistak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak gaituz.

2.3. Helburuak

Lege-esparruarekin bat etorriz, eta hezkuntza-sistemak berdintasunaren eta genero-indarkeria prebenitzearen arloan gaur egun dituen erronkei erantzuteko, 3 helburu estrategiko eta 9 espezifiko ezarri dira:

1. Hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzazko eskola-eredua era koordinatuan bultzatzeko egiturez eta pertsonaz.

1.1. Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea trebatzea, beren esku-hartzeak hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa aintzat hartuz egingo direla bermatzeko.

1.2. Ikastetxeetan hezkidetzeta eta berdintasunaren aldeko neurriak ezartzeko koordinazioko figurak eta egiturak garatzea.

1.3. Irakasleen eta hezitzaileen langile hornikuntza prozesuetan hezkidetzan trebakuntza sustatzea.

1.4. Koordinazioa bultzatzea, hezkuntzaren arloan dauden ekimenak eta programak koherenteak izan daitezen genero ikuspegiari dagokionez.

2. Eskola mistoan eraldaketa-prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskola baterantz joateko

2.1. Ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten bultzatzea.

2.2. Tutoretza- eta orientazio-planetan genero-ikuspegia txertatzea.

2.3. Eskola-komunitateko arlo ezberdinen arteko lankidetzeta bultzatzea.

3. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria-mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

3.1. Genero-indarkeriaren sozializazio prebentiboa sustatzea.

3.2. Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria-mota guztiei azkar eta eraginkorki erantzuteko mekanismoak sortzea.

3. Konpromisoak eta erdietsi beharreko lorpenak

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak konpromiso eta lorpen hauek ezarri ditu legegaldi honetarako:

1. Lorpena: Irakasleen sentsibilizazioa hezkidetzan, sexu eta afektibitate aniztasuna eta genero-indarkeriaren prebentzian.

- ▶ Horretarako, hezkuntza-administrazioak oinarrizko prestakuntza taxutu eta kudeatzeko konpromisoa hartzen du, eta baita hezkuntza-lana ildo horretatik egiteko behar diren mintegiak, ikastaroak, materialak, orientabideak eta jarraibideak ikastetxeen esku jartzeko ere.
- ▶ *Xedea: irakasleen % 60k oinarrizko sentsibilizazioa jaso du (10 orduko modulua).*

2. Lorpena: Ikastetxe askori berriazko prestakuntza ematea eskola mistoa eraldatzeko prozesuak abian jartzeko, hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatuko dituen eskola baterantz.

- ▶ Horretarako, hezkuntza-administrazioak zonako mintegiak eskainiko ditu Berritzeguneetan, eta prestakuntza eta aholkularitza ikastetxeetan bertan. Hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko proiektu bat gauzatzeko konpromisoa hartzen duten –eta dagokion deialdian parte hartuz hala egiaztatzen duten– ikastetxeei astean hiru orduko kreditua emango zaie, hiru ikasturtean zehar, pertsona arduradunak prozesua koordinatu eta dinamiza dezan.
- ▶ *Xedea: ikastetxeen % 30ek berriazko prestakuntza jaso du, eskola mistotik abiatu eta hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzian oinarritutako eskolarako transformazio-prozesuak hasteko.*

3. Lorpena: Ezaugarri eta egoera soziokultural ezberdinak dituzten hamar ikastetxe pilotutan proiektu integralak garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako ikastetxeentzat eredu eta erreferentzia izan daitezen.

- ▶ Horretarako, ikastetxe horiek berriazko baliabideak izango dituzte, hala nola aparteko baimen-orduak eta Berritzeguneek nahiz Hezkuntza Ikuskaritzak eskainitako prestakuntza, aholkularitza eta jarraipena.
- ▶ Proiektu hauetatik sortuko diren praktika onak beste ikastetxe guztietara zabalduko dira berritzeguneen bidez.

- ▶ **Xedea:** zenbait ezaugarri eta egoera soziokulturaletako 10 ikastetxetan, proiektu integralak garatzen ari dira.

4. Lorpena: Ikastetxeetan hezkidetzako irakasle arduradunak eta Ordezkaritza Organo Gorenetan berdintasun-ordezkaria izendatzea, eta hezkuntza-komunitate osorako koordinazio- eta partaidetza-egiturak sortzea.

- ▶ Irakasle arduradunek eginkizun horretaz arduratzeko aparteko orduak eduki ahal izango dituzte, ikastetxeak hala erabakitzen badu, eta baita zonako Berritzegunearen aholkularitza ere. Deialdian parte hartzen duten ikastetxeek astean hiru orduko kreditua izango dute, hiru ikasturtean, eta zonako mintegiekin emango duten berriazko prestakuntza.
- ▶ Berdintasun-ordezkariek aukera izango dute sailak eta Ikasleen Gurasoen Elkarrekin antolatutako prestakuntza-saioretara joateko.
- ▶ **Xedea:** ikastetxeen %100ek hezkidetzako irakasleak izendatu dituzte, berdintasunerako ordezkariak, eta hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen duen berdintasun-batzorde bat sortu dute.

5. Lorpena: Saileko zerbitzu estrategiko bakoitzean (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzan, Hezkuntza Ikuskaritzan, irakasleei laguntzeko zerbitzuan, ISEI-IVEIn) hezkidetzako eta genero-indarkeria prebenitzeko arduradunak izendatzea.

- ▶ Hezkidetzak eta genero indarkeriaren prebentzioa izango da zerbitzu horien lehentasunetako bat beren jardueraren esparru ezberdinetan, eta, horretarako, prestakuntza jasoko dute, koordinazioa bultzatuko da eta horietariko bakoitzean hezkidetzan, berdintasunean eta genero-indarkerian prestakuntza baldintza duen plaza bat egokituko da. Era berean, genero indarkeriaren prebentzioa sustatuko dituen eskola-ereduaren garapeneren azterketa eta jarraipena egingo du ISEI-IVEIk.
- ▶ **Xedea:** Saileko zerbitzu estrategiko bakoitzean (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzan, Hezkuntza Ikuskaritzan, irakasleei laguntzeko zerbitzuan, ISEI-IVEIn) hezkidetzan, berdintasunean, eta genero-indarkerian trebakuntza baldintza duen plaza bat daukate (gutxienez gailu 150 orduko trebakuntza izan behar da eta unibertsitate batek edo administrazio publikoak onetsia).
- ▶ **Xedea:** ISEI-IVEI erakundeak jarraipen-azterlan bat diseinatu du, hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzioan oinarritutako eskola-ereduaren garapeneren jarraipena egiteko.

4. Kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa

Plan hau 2013-2014 ikasturtetik 2015-2016 ikasturtera garatuko da. Denboraldi horretan, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da. Horretarako, zenbait ebaluazio-mota ezarri dira, eta kudeaketarako bi egitura aurreikusi dira.

4.1. Ebaluazio-sistema

Ebaluazio-sistema Planaren beste tresna bat izango da, hezkuntzaren alorrean genero-ikuspegia sustatzeko, aurrerapenak neurtzeko, prozesuan egin beharreko hobekuntzak identifikatzeko eta eragileek eta sektoreek egiten duten guztia sistematizatzeko eta balioesteko.

Azken batean, ebaluazioa funtsezko prozesua da informazio garrantzitsua izateko: zer jarduerak eta kudeaketa-moduk lortzen dituzten emaitza positiboak, horietako zeinek behar dituen hobekuntzak, ea zer jarduera jar daitezkeen abian. Horretarako, Planak ebaluazio-mota hauek aurreikusten ditu:

↳ Prozesuaren ebaluazioa

Planak adierazle multzoak³¹ ditu, hiru helburu estrategikoei lotuak. Adierazle horiek planifikatutako emaitzen berri emango dute, bai espero diren emaitzak bai espero ez direnak.

Ebaluazio horren bidez, aldaketak eta hobekuntzak txerta daitezke Plana garatzen den bitartean. Horretarako, urtero neurtuko dira adierazle horiek, eta, modu orokorrean, Plana amaitu eta gero.

↳ Eraginaren ebaluazioa

Planaren eragina neurtzeko, kuantifikatutako helburu batzuk garatu dira. Helburu horien bitartez, Sailak ezarri dituen emaitzak eta konpromisoak³² betetzen diren neurtu nahi da.

Azkenik, hezkuntza-sisteman izan diren aldaketak neurtzeko, Planak aurreikusten dituen jardueretako bat ISEI-IVEI erakundeak azterlan bat egitea da, hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzioan oinarritutako eskola-ereduaren garapenari buruzko informazioa izateko.

³¹ Ikusi I eranskina: adierazle-multzoa.

³² Ikusi Planaren *Konpromisoak eta erdietsi beharreko lorpenak* izeneko atala.

4.2. Egiturak

4.2.1. Jarraipen-batzordea

↳ Batzordekideak

- Hezkuntza Sailburuordetza.
- Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza.
- Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza.
- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko Zuzendaritza.
- Ikuskaritza Nagusia.
- Emakundeko Idazkari Nagusia.
- Euskadiko Eskola Kontseiluko Lehendakaria.
- Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

↳ Funtzioak

- Plana abian jartzen dela eta garatzen dela bermatzea.
- Esku hartzeko eta ebaluatzeko estrategiak ezartzea.
- Planaren garapenean parte hartzen duten gizarte-sektoreen proposamenak jasotzea.

↳ Bilerak

Batzorde hori ikasturte bakoitzean 2 aldiz gutxienez bilduko da. Bilera bat ikasturtearen hasieran, ikasturtean egingo diren jarduerak planifikatzeko eta, beste bilera bat ikasturtearen amaieran, urteko plangintza ebaluatzeko, aurreikusitako helburuak lortzen ari diren neurtzeko eta egin beharreko aldaketak erabakitzeko.

4.2.2. Batzorde teknikoa

↳ Batzordekideak

- Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza.
- Plana egiten parte hartu duten talde eragileko 4 lagunak:
 - Eskola inklusiboko arduraduna (generoa eta aniztasuna).
 - Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako teknikaria (hezkuntza-arloa).
 - Bigarren etapako aholkularia A02.
 - Ikaskuntza-komunitateen laguntzailea.

- Euskadiko Eskola Kontseiluko ordezkari bat.
- Bizikidetzeta-laguntzailea Berritzegune Nagusian.
- Ikuskaritza Nagusiko ordezkari bat.
- ISEI-IVEI erakundeko ordezkari bat.
- Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako ordezkari bat.
- Langileriaren hornikuntza zerbitzuko ordezkari bat (Langileriaren kudeaketaren zuzendaritza).
- Emakundeko ordezkari bat.

Funtzioak

- Egin beharreko jardueren planifikazio-zirriborro bat egitea urtero.
- Jardueren jarraipenak egitea eta behar diren zuzentzeko eta hobetzeko tresnak proposatzea.
- Informazioa jasotzea, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- Jarraipen, ebaluazio eta hobekuntza-proposamenei buruzko txostenak egitea, jarraipen-batzorderako.

4.3. Komunikazio-sistema

Hezkuntza-administrazioak, hein handi batean, Plana diseinatzeaz, ezartzeaz eta ebaluatzeaz arduratu behar du, baina beste pertsona batzuen, Berritzeguneen, irakasleen, familien eta ikasleen konpromisoa ere behar du. Plan honek arrakasta izango badu, hezkuntza-komunitate guztiak parte hartu behar du.

Hortaz, ezinbestekoa da, hezkuntza-komunitateak eta gizarteak batetik, planaren garapenaren gaineko informazio zuzena izatea, eta, bestetik, informazioa trukatzeko bideak eta dauden asmoen, erronken eta aurrerapenen berri izatea.

Hezkuntza-komunitatearekiko komunikazioa

Hainbat jarduera aurreikusi dira, Plana hezkuntza-komunitateko sektoreetan hedatzeko eta komunikatzeko, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldien bitartez eta jardunbide egokiak trukatzuz. Jarduera horietan, ikastetxeek, irakasleek eta familiek hartuko dute parte.

Sailen arteko eta erakundeen arteko komunikazioa

Sailak beste erakunde eta sail batzuekin batera eratzen dituen batzordeak erabiliko dira; adibidez: *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II.*

Hitzarmenaren jarraipen-batzordea; eta Berdintasunerako Sailarteko Batzordea, Planaren aurrerapenen eta garapenaren berri emateko.

Sailaren komunikazioa

Aurreikusita dago Sailak, hezkuntza-administrazioa den aldetik, Plan honi buruzko eta Plan honetan hartu dituen konpromisoari buruzko informazioa ematea Saileko zerbitzu estrategiko guztiei (Hezkuntza-Berrikuntza, Hezkuntza Ikuskaritza, Berritzeguneak, ISEI-IVEI).

Halaber, Planari buruzko informazioa emango zaie saileko sailburuordetzeko teknikariei eta politikariei.

Gizarteari, oro har

Biztanleriari, elkarteei eta mugimendu feministari jakinaraziko zaie zer neurri hartzen ari diren hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzioan, eta zer emaitza lortzen ari diren. Ekintza horren helburua informazio-eskubidea bermatzea da, bai eta gizarteak Planaren jarraipenaren berri izatea eta planean inplikatzea ere.

Lan-plana

1. Helburu estrategikoa

Hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan bultzatzeko egiturez eta pertsonez.

1.1. Helburu zehatza: Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea trebatzea, beren esku-hartzeak hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa aintzat hartuz egingo direla bermatzeko.

Estrategiak	Ekintzak	kronograma			
		2013-2014	2014-2015	2015-2016	
1.1.a. Prestakuntza eta baliabideak eskaintzea, irakasleak, familiak eta ikastetxeetako zuzendaritzak hezkidetzeta eta genero-indarkeria, hezkidetzeta eta aniztasun afektibo-sexuala lantzeko gai izan daitezten.	1.1.a.1. Hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko zonako mintegiak antolatu hiru lurraldeetan.	X	X	X	
	1.1.a.2. Hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriari buruzko 10 orduko sensibilizazio-prestakuntzako modulu bat diseinatu eta eman irakasleei.		X	X	
	1.1.a.3. Sailaren etengabeko prestakuntzaren arloko eskaintza genero-ikuspegia aintzat hartuz egiten dela egiaztatzeko eta baloratzeko irizpideak zehaztu.			X	X
	1.1.a.4. Irakasleen etengabeko prestakuntza planean hezkuntzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriari buruzko berriazko ikastaroak eskaini.		X	X	X
	1.1.a.5. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak Ikasleen Gurasoen Elkarteei laguntzak emateko egiten duen deialdian berdintasunari buruzko klausulak sartu, eta lehenetsuna eman emakumeen eta gizonen berdintasuna, hezkidetzeta, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzen dituzten proiektu eta jardueri.			X	X
1.1.b. Prestakuntza eskaintzea, ebaluazio, ikerketa eta hezkuntza-ikuskaritzako zerbitzuek hezkidetzan, aniztasun afektibo-sexualean eta genero-indarkerian prestakuntza dutela bermatzeko.	1.1.b.1. Hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko bi prestakuntza saio sartu ikastetxeetako zuzendaritza-karguentzat antolatutako ikastaroetan.	X	X	X	
	1.1.b.2. Hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko urtero bat edo bi prestakuntza saio antolatu Hezkuntza Ikuskaritzako langileentzat.	X	X	X	
	1.1.b.3. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko (ISEI-IVEI) langileek genero-ikuspegia duten azterlanak taxutzeari eta genero-azterlanei buruzko prestakuntza antolatu.	X	X	X	
1.1.c. Prestakuntza eta baliabideak eskaintzea, hezkuntza berriztatze eta irakasleei laguntzeko zerbitzuetan hezkidetzan, aniztasun afektibo-sexualean eta genero-indarkerian prestakuntza duten langileak dituztela bermatzeko.	1.1.c.1. Hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko mintegi bat dinamizatu zonako mintegien ardura duten aholkulariei zuzenduta.	X	X	X	
	1.1.c.2. Hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza-ekintzak antolatu Berritzeguneetako langile guztiei zuzenduta.	X	X	X	
	1.1.c.3. Hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza eskaini hezkuntza berriztatze zerbitzuetako langileei.		X	X	

1.2. Helburu zehatza: Ikastetxeetan hezkidetzaren aldeko neurriak ezartzeko koordinazioko figurak eta egiturak garatzea.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
1.2.a. Ikastetxeak aholkularitza, jarraipena, bitarteko eta baliabideez hornitzea, berdintasun-ordezkararen eta hezkidetzaren arduradunaren figurak sor ditzaten eta ikastetxearen barruan hezkidetzaren arloko koordinazio-egiturak era ditzaten.	1.2.a.1. Eskualdeko Berritzegune bakoitzean hezkidetzaren, berdintasuneko eta genero-indarkeriko arduraduna izendatu, mintegi bat sustatzeko.	X	X	X
	1.2.a.2. Hezkuntza Sailburuordetzaren ikasturte hasierako ebazpenean, ikastetxeetan bi figura hauek txertatu: hezkidetzaren arduraduna eta berdintasun-ordezkaritza Organo Gorenetan; era berean, berdintasunaren arloko koordinazio-egitura bat eratzea aurreikusita.	X	X	X
	1.2.a.3. Proiektu ofiziala duten eta hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko mintegietan parte hartzen duten ikastetxeen baliabideak eman (ordu-kreditua, baliabide ekonomikoak, aholkularitza, materialak...).	X	X	X
	1.2.a.4. Lurralde bakoitzean mintegi/jardunaldi bat eskaini Ordezkaritza Organo Goreneko ordezkarientzat.	X	X	X
	1.2.a.5. Hezkidetzaren garatzeko ardura duten figuren eta egituren lana bultzatzeko tresnak landu eta ikastetxeen eskaini.	X	X	X
	1.2.a.6. Jardunbide egokiak trukatzeko jardunaldi bat egin hezkidetzaren sustatzeko koordinazioko figurak eta egiturak garatu dituzten ikastetxeekin.	X	X	X
	1.2.a.7. Figura horien jarraipena Hezkuntza Ikuskaritzako planetan sartu.		X	X

1.3. Helburu zehatza: Irakasleen eta hezitzaileen langile hornikuntza prozesuetan hezkidetzan trebakuntza sustatu.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
1.3.a. Hezkidetzaren, berdintasuna eta genero-indarkerian gaituak dauden langileez hezkuntzako zerbitzu estrategikoak hornitzea: ebaluazio, ikerketa, hezkuntza-ikuskaritza eta irakasleei laguntzeko zerbitzuak.	1.3.a.1. Beharrezkoak diren administrazio prozedurak hasi, hezkuntzako zerbitzu estrategikoen (ebaluazio, ikerketa, hezkuntza-ikuskaritza eta irakasleei laguntzeko zerbitzuak) lanpostu zerrrendak aldatzeko; hain zuzen ere hezkidetzaren, berdintasuna eta genero-indarkeriako gaitasuna errekonozituta duten lanpostuak egon daitezten.		X	X
	1.3.a.2. Hezkidetzan, berdintasunean, eta genero-indarkerian trebakuntza baldintza bete ahal izateko, ISEI-IVEleko, Berriztatzeko Zuzendaritzako eta Hezkuntza Ikuskaritza langileei prestakuntza baliabideak ahalbideratzea.			X
1.3.b. Hezkidetzaren, berdintasunaren eta genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza baloratzea irakasleen eta hezitzaileen hautaketa-prozesuetan.	1.3.b.1. Hezkidetzaren, berdintasunaren eta genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza meritua gisa, baloratu ikastetxeetako zuzendaritza-karguak hautatzeko orduan.	X	X	X
	1.3.b.2. Hezkidetzari, berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko edukiak sartu, irakasleen eta hezitzaileen hautaketa-prozesuetan.	X	X	X
	1.3.b.3. Hezkidetzan, berdintasuna eta genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza meritua gisa sartu irakasleen eta hezitzaileen hautaketa-prozesuetan.		X	X
1.3.c. Irakasleen hasierako prestakuntzan berdintasunari, hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruzko edukiak txerta daitezten bultzatzea, eduki horiek unibertsitateko maisu-maistra ikasketetan eta Bigarren Hezkuntzako Masterrean sartuz.	1.3.c.1. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateak premiatu berdintasunari, hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruzko edukiak sar ditzaten irakasleen hasierako prestakuntzako gradu ikasketetan eta Bigarren Hezkuntzako Masterrean.	X	X	X
	1.3.c.2. Irakasle eskolekin lankidetzan aritu, Plan honen zabalkundearen eta irakasle-gai diren ikasleei hezkidetzaren, eta genero-indarkeriaren prestakuntzan.	X	X	X

1.4. Helburu zehatza: Koordinazioa bultzatzea, hezkuntzaren arloan dauden ekimenak eta programak koherenteak izan daitezen genero ikuspegiari dagokionez.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
1.4.b. Ikastetxeetara heltzen diren ekimenak, programak eta proposamenak era koherente eta koordinatuan eta berdintasun-politikekin bat etorri gara daitezen sustatzea.	1.4.a.1. Hezkuntzako programa/proiektu batek genero-ikuspegia noiz duen ebazteko irizpide batzuk sortu.		X	X
	1.4.a.2. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak bultzatzen dituen proiektuak/programak/ekimenak berraztertu, hezkidetzarekin eta berdintasun-politikekin bat etorri garatzen direla bermatzeko.		X	X
	1.4.a.3 Hezkuntza berriztatzeko organoetan eta irakasleei laguntzeko zerbitzuetan proiektuak/programak/ekimenak bultzatzeko ardura duten langileei prestakuntza eman, hezkuntza-proiektuetan genero-ikuspegia txertatzearen inguruan.			X
	1.4.a.4. Ikastetxeek garatzen dituzten proiektuak/programak/ekimenak berraztertu, hezkidetzarekin eta berdintasun-politikekin bat etorri egiten direla bermatzeko.			X
1.4.b. UPV/EHUREKIKO lankidetzaren indartzea.	1.4.b.1. Emakumeen eta gizonen Berdintasuneko Masterreko (EHU/UPV) praktikak ikastetxeetan eta Berritzeguneetan egiteko hitzarmena/akordioa egin.		X	X
	1.4.b.2. Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko ezagutza teoriko-praktikoa bultzatzeko lantalde bat sortu.		X	X
	1.4.b.3. Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterrarekin (EHU/UPV) harremanak ezarri azterlanean parte hartzeko, ikasleek ISEI-IVEIn praktikak eginez edo Sailarekin bestelako elkarlanetan.		X	X
1.4.c. Eskola mistotik hezkidetzazko eskolarako eraldaketaren inguruko aldaketak ikertzea eta horien jarraipena egitea ISEI-IVEIren eskutik.	1.4.c.1. Eskola mistotik hezkidetzazko eskolarako eraldaketaren inguruko aldaketak aztertzeke ikerketa bat egin.			X

2. Helburu estrategikoa

Eskola mistoan eraldaketa-prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskola baterantz joateko.

2.1. Helburu zehatza: Ikastetxeek beren kulturari, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten bultzatzea.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
2.1.a. Curriculuma genero-ikuspegitik garatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 29. artikuluan xedatutako hezkidetzazko helburuak txertatuz.	2.1.a.1. Irakaskuntza-mota ezberdinak erregulatzeko dituen Sailaren araudiak hezkidetzazko helburuak barne hartu.	X	X	X
	2.1.a.2. Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egin dioten ekarpen sozial, zientifiko eta historikoa barne hartzen dituzten curriculum-proposamenak eskaini, ikastetxe guztiei.		X	X
	2.1.a.3. Irakasleei curriculuma genero-ikuspegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak/materialak egin.		X	X
	2.1.a.4. <i>Generoa eta Gizarte-Aldaketa</i> hautazko ikasgaiarako curriculuma egin.		X	
	2.1.a.5. <i>Generoa eta Gizarte-Aldaketa</i> hautazko ikasgaiak Bigarren hezkuntzako 10 ikastetxetan eman.			X
	2.1.a.6. <i>Herritartasuna</i> ikasgaiak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko edukietan sakontzeko laguntza-materialak eta orientabideak egokitu.		X	X
	2.1.a.7. Data esanguratsu batzuetan (martxoaren 8an, azaroaren 25ean, maiatzaren 17an, ekainaren 28an...), hezkidetzazko sistematikoki lantzeko curriculum-proposamenak osatu eta luzatu ikastetxeei.		X	X
2.1.b. Genero-ikuspegia osagai estrategikotzat hartzea Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak eskaintzen dituen plangintzako dokumentu guztietan, ikastetxeek dokumentuetan berrikuspenak eta hobekuntzak egin ditzaten, erabakiak hartu eta ekintzak aurrera eraman ditzaten...	2.1.b.1. Ikastetxeei bertan genero-berdintasuna lantzeko orientabideak zehaztu eta zabaldu.			X
	2.1.b.2. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak genero-ikuspegia plan estrategikotzat jo, bere deialdi eta jarraibide guztietan.	X	X	X
	2.1.b.3. Ikastetxe guztiei zabaldu zentroko genero-diagnostikoa egiteko materialak.		X	X
	2.1.b.4. Ikastetxeek genero-diagnostikoa egin dezaten sustatu.		X	X
	2.1.b.5. Orientabideak eta tresnak landu eta zabaldu, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP), Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP), Antolamendu eta Jarduera Araudia (AJA) eta Ikastetxearen Urteko Plana (IUP) hezkidetzazko ikuspegitik berraztertze.		X	X
	2.1.b.6. Ikastetxe guztiek dituzten dokumentuak berraztertu eta hobetu, hezkidetzazko ikuspegitik.		X	X

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
2.1.c. Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea.	2.1.c.1. Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko proiektuak taxutzeko, ikastetxe publikoei zuzendutako deialdi bat egin, prestakuntza, aholkularitza eta aparteko baimen-orduak barne hartzen dituena.	X	X	X
	2.1.c.2. Hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko proiektuak taxutzeko, itunpeko ikastetxeei zuzendutako berariazko deialdi bat egin, prestakuntza, aholkularitza eta baliabideak barne hartzen dituena.		X	X
	2.1.c.3. Hezkidetzari Proiektu Integraleko deialdi bat egin, hiru urterako eta 10 ikastetxerako prestakuntza, aholkularitza eta aparteko baimen-orduak barne hartzen dituena.		X	X
	2.1.c.4. Berriztatze-prestakuntzako proiektuetan, genero-berdintasuna lehentasun bihurtu, eta ziurtatu deialdi bakoitzean gero eta gehiago direla ildo horretako proiektuak aurkeztu dituzten ikastetxeak.		X	X
2.1.d. Ikastetxeen esku jartzea hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruzko materialak eta baliabideak, eskola bakoitzak bere materialen egokitzapena egin dezan.	2.1.d.1. Plataforma bat sortu material eta baliabideekin, eta irakasleen esku jarri.	X	X	X
	2.1.d.2. Materialak hezkidetzaren ikuspegitik aztertu, hautatu eta hobetzeko irizpideak eman ikastetxeei.		X	X
	2.1.d.3. Familia-ereduen, sexu-identitateen, askotariko kulturetako emakumeen... aniztasuna islatzen eta erantzukidetasunean eta arretan oinarritutako harremanak aintzat hartzen dituzten materialak eskaini.	X	X	X
2.1.e. Material ez-sexistak lantzen dituzten argitaletxeei ziurtagiriak edota aintzatespen-agiriak ematea.	2.1.e.1. Material ez-sexistak lantzeagatik argitaletxeei ziurtagiriak edota aintzatespen-agiriak emateko protokolo-baldintzak ezarri.		X	X
	2.1.e.2. Ziurtagiriak edota aintzatespen-agiriak eman.			X
	2.1.e.3. Material sexisten inguruko kexak bideratzeko prozedura zehaztu, eta ikastetxeei ezagutzera eman.		X	X

2.2. Helburu zehatza: Tutoretza- eta orientazio-planetan genero-ikuspegia txertatzea.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
2.2.a. Ikasturte hasierako ebazpenetan, tutoretza- eta orientazio-planetan berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarraibideak ematea.	2.2.a.1. Orientatzaileei eta aholkulariei zuzendutako zonako mintegietan hezkidetzaren eta genero-ikuspegia landu.		X	X
	2.2.a.2. Hezkuntzari buruzko programa, proiektu, material eta abarren aurkezpenak egin.		X	X
2.2.b. Material egokia ematea, tutoretzan ikasleen orientazio akademiko-profesionala nahiz pertsonala generoaren ikuspegitik lantzeko.	2.2.b.1. Tutoretza genero-ikuspegitik lantzeko orientabideak, materialak, irizpideak... banatu ikastetxeetan, autonomia pertsonala, ikasle guztiaren erantzukidetasuna eta, bereziki, generoaren baldintzapenari muzin egiten dioten neska-mutilekin autoestimua eta ahalduntzea lantzeko.		X	X
	2.2.b.2. Zona guztietan aurkeztu eta banatu baliabideak eta gidak ikasleei beren orientazio akademiko-profesionala nahiz pertsonala errazteko, generoaren baldintzapenaren mende egon gabe.		X	X
2.2.c. Neska-mutilek eskola uztea prebenitzeko ekintzak garatzea.	2.2.c.1. Orientatzaile eta aholkularien mintegietan, bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboetako neskek eskola uztea prebenitzeko jarduerak landu.		X	X
	2.2.c.2. Ikastetxeei jarraibideak eman Aniztasunari erantzuteko Planean generoaren aldagaia landu dadin, mutilen eta nesken eskola-uztea murrizte aldera.		X	X

2.3. Helburu zehatza: Eskola-komunitateko arlo ezberdinen arteko lankidetzaren bultzatzea.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
2.3.a. Hezkidetzari buruzko ezagutza sortzea eta elkartrukatzea sustatzea.	2.3.a.1. Hezkidetzaren landuko duen ikastetxe-sare bat sortu.		X	X
	2.3.a.2. Komunitatean hezkidetzazko jardunbide egokiak identifikatu eta esperientziak trukatu eta jendarteratzeko jardunaldiak egin.	X	X	X
	2.3.a.3. Ordezkaritza Organo Goreneko berdintasun-ordezkararen figurari dagokionez jardunbide egokiak ezagutzera eman.	X	X	X
2.3.b. Ikastetxeetan beste gizarte-eragile batzuen partaidetza indartzea, ikasleen artean hausnarketa eta harreman positiboak bultzatzeko.	2.3.b.1. Irakasle ez diren beste hezkuntza-eragile batzuek hezkidetzaren proiektuetan parte hartuko dutela bermatu.	X	X	X
	2.3.b.2. Eskola-komunitateko emakumeek eskola-jardueran parte hartzeko eta haien presentzia bermatzeko estrategiak eskaini.	X	X	X

3. Helburu estrategikoa

Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

3.1. Helburu zehatza: Genero-indarkeriaren sozializazio prebentiboa sustatzea.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
3.1.a. Jada frogatu diren genero-indarkeriaren sozializazio prebentiborako programak ikastetxeetan abian jar daitezzen sustatzea eta bultzatzea.	3.1.a.1. Erabili eta ebaluatutako genero-indarkeriaren sozializazio prebentiborako programak, materialak... hautatu eta ikastetxeei eskaini.	X	X	X
	3.1.a.2. Genero-indarkeriaren sozializazio prebentiborako programak abian jartzea eskatu duten ikastetxeei aholkatu.	X	X	X
	3.1.a.3. Zonako mintegietan genero-indarkeriaren sozializazio prebentiboaren inguruan egin den lana txertatu.	X	X	X
	3.1.a.4. Hezkidetzeta-proiektuei eta 10 proiektu integralei buruzko deialdietan genero-indarkeriaren sozializazio prebentiboa eta sorburuan generoa duten gatazkak kontuan hartu.	X	X	X
	3.1.a.5. Lehenengo urteetan gertatzen diren berdin arteko abusu-portaerak erabat arbuatuak izan daitezzen sustatzeko estrategiak biltzen dituzten materialak landu.	X	X	X
	3.1.a.6. Heziketa afektibo-sexualari buruzko materialak egin/egokitu, erakarpen-ereduei eta maskulinitate- eta feminitate-eredu hegemonikoei eta horiek harreman afektibo-sexualetan dituzten ondorioei buruzko hausnarketa barne hartzen dutenak.		X	X
	3.1.a.7. Elkarriketan, norbanakoaren aukera errespetuan eta tratu onean oinarritutako berdintasuneko maitasun-harremanei buruzko kontakizunak sustatzeko materialak egin/egokitu.		X	X
	3.1.a.8. Berritzeguneen bitartez, materialak, prestakuntza eta laguntza landu eta irakasleei eskaini.	X	X	X
3.1.b. Ikastetxeetan berdin arteko tratu txarrak (<i>bullying</i> eta <i>cyberbullying</i>) generoaren ikuspegitik lantzea ahalbidetuko duten programak, proiektuak eta jarduerak egin ditzaten bultzatzea eta laguntzea.	3.1.b.1. Materialak hautatu edota egin eta Berritzeguneen bitartez, materialak, prestakuntza eta laguntza landu eta hezkuntza-komunitateari eskaini.	X	X	X
	3.1.b.2. Esperientzien trukean lekua egin sare sozialetan indarkeria prebenitzeko jardunbide egokiei.	X	X	X
	3.1.b.3. Hezkuntza-komunitate osorako sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-jarduerak egin sare sozialak modu egokian erabiltzeko.	X	X	X
	3.1.b.4. ISEI-IVEIk eta Unibertsitateak <i>bullying</i> eta <i>cyberbullying</i> fenomenoaren baitan jazarpen sexista eta sexuala norainokoa den iker dezaten sustatu, bai eta ere mutilen genero-sozializazioak eta, zehazki, maskulinitasun tradizionalaren ereduak bere egiteak zein neurriko eragina duen bi fenomeno horietan eta biktima/erasotzaile rolen bereizketaren onarpenean.		X	X

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
3.1.c.. Ikastetxeetan, emakumeen (haur, nerabe, gazte eta helduen) aurkako indarkeria-mota ezberdinak –eta bereziki zolienak, natural bihurtutakoak eta gutxien nabari direnak (mikroindarkeriak)– agerian jartzen dituzten eta horien prebentzioa sustatzen duten sentsibilizazio, informazio- eta prestakuntza-jarduerak egitea, hezkuntza-komunitate osoari begira.	3.1.c..1. Emakumeen (haur, nerabe, gazte eta helduen) aurkako indarkeria-mota ezberdinak –eta bereziki mikroindarkeriari buruzko ikastaroak eskaini.	X	X	X
	3.1.c..2. Mikroindarkeriei buruzko hausnarketa eta lanketa erraztuko duten materialak hautatu edota egin.	X	X	X
	3.1.c..3. Ikasleei genero-indarkeria antzematea eta horri buruz hausnartzea ahalbidetuko dieten eta biktimen alde jarrita haren aurkako erantzun soziala aktibatuko dieten materialak, proposamenak edota programak aukeratu edota egin eta erraztea.	X	X	X
3.1.d. Ikastetxeetan genero ikuspegitik, aniztasun afektibo-sexualari buruzko programak abian jartzen direla bultzatzea eta laguntzea.	3.1.d.1. Ikastetxeei, genero ikuspegitik, aniztasun afektibo-sexualari buruzko dagoeneko erabiliak eta frogatuak dauden programak edota materialak... hautatu eta eskaini.	X	X	X
	3.1.d.2. Heziketa afektibo-sexualaren alderdi ezberdinak lantzen dituzten materialak hautatu, egokitu eta egin.	X	X	X
3.1.e. Sexu-organoen mozketak jasateko arriskuan egon daitezkeen emakumeak dauden ikastetxeetan sentsibilizazioa eta informazioa bultzatzen laguntzea.	3.1.e.1. Sexu-organoen mozketak jasateko arriskuan egon daitezkeen emakumeak dauden ikastetxeetan sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-jarduerak egin.	X	X	X
	3.1.e.2. Jarduera horri buruzko erakunde arteko batzordean parte hartu.	X	X	X

3.2. Helburu zehatza: Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria-mota guztiei azkar eta eraginkorki erantzuteko mekanismoak sortzea.

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma			
		2013-2014	2014-2015	2015-2016	
3.2.a. Detekzio goiztiarreko mekanismoak garatzea eta partaidetza bidezko detekzio-adierazleen sistema bat sortzea, hezkuntza-komunitateak genero-indarkeria jasaten duten haur, nerabe eta pertsona eskolatuen kasuak antzeman ahal izan ditzan. Bereziki kontuan hartuz, genero indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen seme-alabak eta kaltebera izan daitezkeen gainontzeko adin txikikoen kasuak; esaterako, emakumeen aparatu genitalaren ebaketak pairatzeko arriskuan daudenak, hezkuntza premia bereziak dituztenak, eta abar...	3.2.a.1. Partaidetza bidezko detekzio-adierazleen sistema bat sortu, hezkuntza-komunitateak genero-indarkeria jasaten duten haur, nerabe eta pertsona eskolatuen kasuak antzeman ahal izan ditzan.	X			
	3.2.a.2. Genero-indarkeria detektatu eta prebenitzeko berariazko edukiak landu orientatzaile, aholkulari, berdintasun-ordezkarri eta hezkidetzarduradunekin.			X	X
	3.2.a.3. Genero-indarkeria prebenitzeko adierazleak elkarrekin lantzeko aukera eskaini guraso eta senideen federazioei.		X	X	X
	3.2.a.4. Gida bat egin hezkuntza-komunitateari laguntzeko genero-indarkeriaren adierazpide ezberdinak ulertzen, detekzio goiztiarreko mekanismoak xedatzen eta indarkeria-tipologia bakoitzari egokitutako jardura-prozedurak nahiz hezkuntza- eta prebentzio-neurri buruzko jarraibideak ezartzen.			X	
3.2.b. <i>Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko II. Hitzarmenaren baitan, jardura protokoloa berraztertu eta hobetzea eta ikastetxeei ezagutzera ematea.</i>	3.2.b.1. Zeregin horri heltzeko, Sailean lantalde bat eratu Ikuskaritzarekin, Berritzeguneekin eta Berdintasuneko teknikariarekin eta <i>Erakunde arteko II. Hitzarmenaren</i> baitako jardura protokoloa berraztertu eta hobetu.	X			
	3.2.b.2. Hezkidetzarduradunek, berdintasun-ordezkariek eta berdintasun batzordeak ikastetxeetako protokoloak landu.			X	X
	3.2.b.3. Ikastetxe bakoitzean egokitu genero-indarkeriako egoerei azkar eta eraginkorki erantzuteko protokoloak, tokiko protokoloekin – daudenean– koordinatzea ahaztu gabe, modu horretara gainerako arlo eta erakundeekin batera behar diren mekanismoak taxutzeko.			X	X

Estrategiak	Ekintzak	Kronograma		
		2013-2014	2014-2015	2015-2016
3.2.c. Saileko eta ikastetxeetako Elkarbizitzaren Behatokiek genero-indarkeriari buruzko alderdiak lantzen dituztela ziurtatzea.	3.2.c.1. Saileko Elkarbizitzaren Behatokian indarkeriari buruzko alderdiak landu.		X	X
	3.2.c.2. Zeregin horri heltzeko, Sailean lantalde bat eratu Ikuskaritzarekin, Berritzeguneeekin, Berdintasuneko Unitate Tekniko Administrazioarekin...		X	X
	3.2.c.3. Elkarbizitzaren Behatokiak genero-indarkeriari buruzko alderdiak lantzea proposatu ikastetxeei, Ikasturte Hasierako Ebazpenaren bidez.		X	X
	3.2.c.4. Ikastetxeetako Elkarbizitzaren Behatokian genero-indarkeriari buruzko alderdiei jarraipena egin.	X	X	X
	3.2.c.5. Elkarbizitza-Planak genero-ikuspegitik berraztertzeke orientabideak egin.		X	X
3.2.d. Genero-indarkeriako kasuen erregistroa eta jarraipena egin, era guztietako eraso sexistak, eraso sexualak, homofobikoak, lesbofobikoak, transfobikoak... barne hartuz.	3.2.d.1. Erregistro eta jarraipeneko sistema sortu/egokitu...	X		
	3.2.d.2. Genero-indarkeriako kasuen jarraipena egin, era guztietako eraso sexistak, eraso sexualak, homofobikoak, lesbofobikoak, transfobikoak... barne hartuz.	X	X	X

Eranskinak

I. Eranskina. Adierazle-multzoa

1. Helburua: Hezkuntza-sistema egituraz eta pertsonaz hornitzea, hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredia modu koordinatuan sustatzeko.

- Oinarrizko sentsibilizazioa jaso duen irakasleen ehunekoa (10 orduko modulua), sexuaren eta lurraldearen arabera bereizita.
- Hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruzko prestakuntza jaso duten lagunen ehunekoa taldeka (ikuskatzaileak, ebaluazio- eta berrikuntza-zerbitzuak), sexuaren arabera bereizita.
- Hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruzko prestakuntza jaso duten ikastetxeetako zuzendaritza-kargudunen ehunekoa, sexuaren eta lurraldearen arabera bereizita.
- Hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruz kolektiboek eman dituzten prestakuntza-orduak (ikuskatzaileak, ebaluazio- eta berrikuntza-zerbitzuak).
- Mintegietara doazen irakasleen ehunekoa, sexuaren eta lurraldearen arabera bereizita.
- Berdintasunaren alorrean prestakuntza garatzeko laguntzak jasotzen dituzten guraso elkarten ehunekoa.
- Hezkidetzaren arduradunen kopurua (ikastetxeak), sexuaren, ikastetxearen titulartasunaren eta lurraldearen arabera bereizita.
- Berdintasuneko ordezkarien kopurua (OOG), sexuaren, ikastetxearen titulartasunaren eta jatorrizko estamentuaren arabera bereizita.
- Berdintasun Batzorde bat sortu duten ikastetxeen ehunekoa, titulartasunaren eta lurraldearen arabera bereizita.
- Lanpostuak betetzeko prozesuen ehunekoa, non hezkidetzari, berdintasunari, genero-indarkeriari buruzko prestakuntza balioesten duten.
- Hornikuntza prozesuen ehunekoa, non hezkidetzari, berdintasunari, eta genero-indarkeriari buruzko edukiak sartu baitira.

2. Helburua: Eskola mistoa hezkidetzan oinarritutako eskola bihurtzeko transformazio-prozesuak bultzatzea.

- Berdintasuneko diagnostikoa egin duten ikastetxeen ehunekoa, lurraldearen eta ikastetxearen titulartasunaren arabera bereizita.
- Plangintza-dokumentuetan genero-ikuspegia aintzat hartuz hobekuntzak egin dituzten ikastetxeen ehunekoa, lurraldearen eta ikastetxearen titulartasunaren arabera bereizita.

- Proiektu integraletan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua, lurraldearen eta ikastetxe-motaren arabera bereizita.
- Hezkidetzaren proiektuetan eta genero-indarkeria prebenitzeko proiektuetan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua.
- Orientatzaile eta aholkularientzako mintegietan, hezkidetzaren eta genero-indarkeria lantzeko ematen diren orduen ehunekoa.
- Hezkidetzari eta genero-indarkeriari buruz prestakuntza jasotzen duten orientatzaileen ehunekoa, sexuaren eta lurraldearen arabera bereizita.
- Egin diren materialen kopurua (gidak, orientabideak, baliabideak, etab.), edukien eta gaien arabera.
- Hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzen duen sarean parte hartzen duten ikastetxeen kopurua, lurraldearen eta titulartasunaren arabera bereizita.
- Hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioan jardunbide egokiak egin dituzten esperientzien kopurua.

3. Helburua: Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria-mota guztiak prebenitzeko, lehenbailehen detektatzeko eta erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

- Genero-indarkeria prebenitzeko sozializazio-programak abian jarri dituzten ikastetxeen kopurua, titulartasunaren, hezkuntza-mailaren eta lurraldearen arabera bereizita.
- Genero-indarkeriari buruz egin diren materialen kopurua (gidak, orientabideak, baliabideak, etab.).
- Ikastetxeetan detektatu diren ikasleen kopurua, emakumeen aurkako indarkeria-egoerak gertatzen diren etxeetan bizi direnak.
- Detektatu diren eskola-jazarpen sexisten kopurua, jazarpenaren eragilearen sexuaren arabera eta biktimaren sexuaren arabera.
- Detektatu diren eskola-jazarpen sexualen kopurua, jazarpenaren eragilearen sexuaren arabera eta biktimaren sexuaren arabera.
- Detektatu diren eskola-jazarpen homofobikoen, lesbofobikoen eta transfobikoen kopurua, jazarpenaren eragilearen sexuaren arabera eta biktimaren sexuaren arabera.
- Genero-indarkeriari aurre egiteko jokaera-protokoloak egiten dituzten ikastetxeen kopurua.
- Bizikidetzaren Plana genero-ikuspegia aintzat hartuz berraztertu duten ikastetxeen kopurua.

II. Eranskina. Memoria ekonomikoa

Hezkuntza-sisteman Hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana ezartzeko beharrezkoa da:

1. Irakasleriaren oinarrizko prestakuntza ahalbidetzea; ikastetxeetako hezkidetzeta- arduradunak eta eskola-kontseiluetako berdintasun-ordezkariek zein zuzendaritzakoak formatzea; orientatzaile eta kontsultoreen formakuntzari arreta berezia ematea, irakasleria lagundu ahal izateko tutoretzak eta orientazio akademiko eta profesionala beste parametro batzuetatik diseñatzen.

Horrez gain, familientzako formakuntza erraztu beharko da, ikastetxeetan elkarlana garatzeko ezinbestekoa baita.

Formakuntza Berritzeguneetako langileen eskutik emango da, (mintegiak, kurtsoak, hitzaldiak, tertuliak...) baina gaian adituak diren pertsonen eskutik ere burutuko dira saioak, eta irakaslegoarenetengabeko prestakuntza, mintegietan eta zonaldeko edota komunitate osoari eskainitako jardueretan.

2. Orientazioak, materialak, baliabideak... garatzea, ikastetxeei laguntzeko haien dokumentuak, praktikak... genero-ikuspegitik berrikusten eta hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzian aurrera-pausuak ematen lagunduko dizkien erabakiak hartzen. Tresnak dira ondorengoak lantzeko: diagnosiak, testu-liburuen analisisa, genero-indarkeriari aurre egiteko protokoloak, hainbat curriculum-proposamenen moldaketa, *Genero eta Gizarte-Aldaketa* hautazko ikasgaiaren diseinua...

Aurreko puntuan bezala, zonaldeetako Berritzeguneak, Berritzegune Nagusia, Hezkuntza Ikuskaritzak eta hezkuntza-eremuko Emakume eta Gizonen Berdintasun-Teknikariak parte hartuko dute material batzuen diseinuan, beste batzuk Hezkuntza Sailekoak ez diren pertsona espezializatuen eskuetan utziz

3. Hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko baliabideak ematea ikastetxeei. Planean agertzen diren deialdietan aukeratutako ikastetxe publikoek (150 ikastetxe, 10 proiektu-integral) hiru ikasturtetan ordu-kreditua izango dute.

Itunpeko ikastetxeek, Planaren markoan beste deialdi batean parte hartzeko aukera izango dute, bere garapenerako baliabideak emanaz. Deialdirako aurrekontua 2013ko urrian egin gabe dago.

Ikastetxeetan Plana dinamizatzeke, koordinatzeke eta ezartzeko pertsona bat lanaldi osoarekin egongo da Berritzegune Nagusian.

Hiru kasuetan gastu arruntari dagozkion gastuak daude, baina aurreikusi behar diren bestelako gastuak ere badaude

	2013	2014	2015
<i>Formazioa</i>	101.250	139.970,94	179.970,94
<i>Materialak</i>	30.000	30.000	30.000
<i>Ordu-kreditua</i>	295.844,62	530.031,32	1.314.218,02
Guztira	427.094,62 €	790.000 €	1524.188,96 €

